

**POLITIKARI BURUZKO
TXOSTENA**

POLITIKARI BURUZKO TXOSTENA

ESPERIENTZIA ETA ETORKIZUNA

<i>ESPERIENTZIA</i>	1
I.- Bidearen hasiera	1
II.- "Españolisten bilakaera" zeritzona	2
III.- Zatiketak	4
IV.- EAJ eta indarkeriaren baliabidea	8
V.- 2. Errepublika	9
VI.- Gerra Zibila	12
VII.- Monarkia parlamentarioaren pean	14
VIII.- Europan atzerriratua egotearen politika ekarpenak	21
IX.- Totalitarismoan erortzeko arriskua	24
<i>ETORKIZUNA</i>	25
Badatorren iraultza	26
Mundua den herritxoa.....	27
Europar Batasuna.....	28
Euzkadiren eraikintzarako lehenespenak.....	29
<i>GURE USTE SENDOAK, GURE ASMOAK ETA GURE ITXAROPENAK</i>	36
<i>ABERRIAREN ALDEKO AGIRIA 1995, UZTAILAREN 31</i>	45

ESPERIENTZIA ETA ETORKIZUNA

ESPERIENTZIA

I.- Bidearen hasiera

Ez zen izan Sabino Arana Euskal Nazioaren kontzeptuaren aitindaria, ezta Euskal Estatuara iri behar zela eskatu zuen lehena ere. Baina bera izan zen hori politikaren teorian eta praktikan azaldu zuen lehena, eta gainera, hori gauzatu ahal izateko tresna egokia sortu zuena, alegia, **Euzko Alderdi Jeltzalea**, helburu horrexetarako eratu zuena.

Euskal Nazioaren ideia Luis Aranak azaldu zion bere anaia Sabinori. Ideia hori, ziur aski, gaztaroan izan zuen irakasle baten eraginez erne zen haren buruan. Jemein-ek esan zuenez: *"Garai hartan, Luis Arana, Sabinoren anaia, Laguardiako Josuzaleen Ikastetxean (Galizian) ikasten ari zen, eta orduantxe ohartu zen Euskal Nazioaren egiaz... Nola? Zerk eraginda? Zer-nolako burutazioaren ondorioz? Luis burugogorraren sekretuak. Ez dakigu"*.

1882an Luisek ondokoa esan zion Sabinori: *"Bizkaia ez da Espainia, ez izatez, ez Historiaz. Eusko endaren antzinako Estatu askea da. Aztertu gure herria, Sabino, ikasi haren Historia, ikasi gure Foruak deritzen horiek"*.

"Gure Foruak deritzen horiek", Guiard-en antzinako aipamen batean azaltzen denez, *"ez dira errege jaunek beraien menpekoei ematen dieten mesede edo pribilegioak, baizik eta foruak, hau da, errepublika aske batean bezala eta printzipioetan oinarriturik betetzen ziren eta Batzar Nagusian jaunarekin egiten eta agintzen ziren ekanduak eta ohiturak, eta horrela hautatu dituzte bizkaitarrek beti beraien jaunak, horiek foruak orbanik gabe zain ditzaten"*.

"Jaunak baino lehen, Bizkaiak bere-bereak zituen ohiturak eta Legeak izan zituen; borondatez lehena hautatu nahi izan zuenean, gobernatzeko erabili zirenak erakutsi zizkion, amore eman zuen guztiei egingo ziela men, baina haien kontrakorik agintzen bazuen, horri men egingo zitzaion baina ez bete".

Ildo horri jarraituz, Liborio de Ramery y Zuzuarregik El Liberalismo, los Fueros Bascongados izenburuko bere liburuan adierazi zuen gure Foruak zirela Europako Konstituziorik egokiena eta, horrez gain, ondokoa azaldu zuen:

"Euskal Herriko eta Nafarroako probintzien autonomiarako eskubidea eratu eta sortzeko karirik nagusia ordena kronologikoaren arabera eta lau probintzietarik bakoitzarentzat ondokoa da:"

"Gipuzkoako probintzia, askea, independentea edo autonomia, gaur egun esaten den legez, Gaztelako Koroarekin elkartu eta berarekin bat egin zuen 1200ko urriaren 8an Alfontso VIII.aren garaian, eta horretarako, itun bat sinatu zuen bere foruak, ekanduak eta ohiturak bete-bete zainduta egon zitezten."

"Halaber, Arabako probintziak, hau ere askea, independentea eta burujabea zelarik, bat egin zuen bere borondatez Koroarekin Alfontso XI.aren garaian; hori, 1332ko apirilaren 2an horretarako egiletsi zen eskrituran hizpaturiko oinarriari loturik burutu zen."

"Bizkaiko probintzian bertako Jaunek antzina-antzinatik egiten zien zin Foruei eta horiek zaintzeko eta betetzeko itunak sinatzen zituzten. Probintzia honek Gaztelako Koroarekin elkartu eta bat egin zuen 1371n, Jaurerriaren jaun On Juan Infantea bihurtu zenean, zein urte batzuk geroago On Juan I.a, Gaztela eta Bizkaiko Jaurerriko Erregea izan baitzen; Jaurerriaren autonomian horregatik ez zen inolako aldaketarik ez aldarazpenik agertu."

"Eta azkenik, Nafarroako erresumak Gaztelako Koroarekin elkartu eta bat egin zuen 1512ko uztailaren 24an, Iruñeko hiriak eta Albako Dukeak sinatu zuten itunaren ondoren; itun horren bidez, Albako Dukeak iruindarren foruak, pribilegioak eta ohiturak zaindu eta beteko zituela hitz eman zuen".

Euskal Herriko lurraldeak, beraz, *"errepublika askeak"* eta burujabeak izan ziren beti; Jauna hautatu eta berarekin itunak sinatu zituzten; Jaunak Ituna hausten bazuen, Errepublikak bere jatorrizko burujabetza osoa berreskuratzen zuen.

Horixe zen aberri honen tesia Sabino edo Larramendi baino askoz lehenagotik. Ituna hautsita, Bizkaia *"eusko endaren antzinako Estatu askea da, ez da Espainia, ez izatez, ez Historiaz"* Sabinok esan zuen bezala. Hortaz, Sabinoren lehen oihua *"Bizkaiaren independentziaren alde"* izan zen, indarreko foruen azalpenarekin bat zetorrena.

Baina jatorriz errepublika burujabeak izateaz gain, Aranatarrek, gainera, endaren kontzeptua nabarmendu zuten herriaren ezberdintasunaren adierazgarri gisa. Kontzeptu hori asko erabiltzen zen garai hartan, eta Italiako, eta batez ere Alemaniako, *"nazionalitateen printzipio"*tik hartu zuten; gainera, garai hartan kontzeptu horrek ez zuen Gobineau-k, astisemitismoak eta nazismoak hitz horri eman zioten nagusikeria edo mespretxu zentzurik.

Azkenik, Sabinok hizkuntzaren kontzeptuaz jardun zuen eta 1886an ondokoa adierazi zuen: *"Euskera da euskaldunen aberriaren funtsezko oinarria, eta hori gabe, aberri horretan ez legoke erakunderik. Euskera desagertzen bada, horrek aberriaren hondamendia ekarriko luke, aberria hil egingo litzatekeelako udazkeneko ostoa hiltzen den moduan... Hizkuntza bera eta bere historia behar bezala aztertu ahal izateko, ideia guztiek elkarrekin bat etorri behar dute, metodoak bat egin eta erraztu egin behar dira eta teoriak bateratu beharra dago... "*

Hortaz, Bizkaitik Euskal Nazioaren ideia zabaltzera pasatu zen, eta bai Euskal Estatu Konfederal baten ideia sortzera ere; estatu hori sei euskal lurralde historikoak batzetik eratuko litzateke, beti ere lurralde horietarik bakoitza burujabea izanda. Sabinok argi eta garbi aldarrikatu zuen Euskal Nazioaren eta Euskal Estatuaren beharrezana.

II.- "Españolisten bilakaera" zeritzona

Sabinok foruzaleekin, integristekin edo karlistekin batera itunen edo ekintzaren bat burutzeari uko egin zion hasieratik, adibidez 1895ean gertatu zen bezala azken horiek *"integristekin"*

eta Euskalerrriako-ekin liberalen aurkako eta maketoen aurkako fronte bat sortzeko" proposamena egin ziotenean. Erantzuna ondokoa izan zen: "nahiago dugu hil, españolistekin bat egin baino...", "alderdi españolistekin oturuntza politiko batean elkartzea gure heriotzea izango litzateke". Beraz, begi bistan dago Arana beldur zela Gipuzkoako integristengana edo Bizkaiko euskalerrriakoengana hurbiltzeak abertzaletasuna erregionalismo huts bihurtuko ez ote zuten. "Ezin daiteke batasunik egon pentsakera eta sentitzeko modu bera ez badago". Eta Gipuzkoako "El Fuerista"k abertzaleak defendatu zituenen, Sabinok ondokoa adierazi zuen: "Eskertuko genioke, españolista izango ez balitz".

Hala ere, Estatuak EAJ alderdia **zapaltzeko ahalegin etengabeak** egiten ari zen eta, bereziki, nabarmentzekoa izan zen Espainiako militarrek 1903ko maiatzaren 2an EAJ alderdiaren egoitzari eraso egin eta hura txikitu zutenean, maiatzaren 25ean Arana bera gartzeleratu zutenean, edo Bizkaiko Gobernadoreak EAJko 10 zinegotzi bilbotar beraien eginkizunetik kanpo utzi zituenen. Elkarte, biltze eta inprimatze eskubideez gain, hautaketa eskubidea ere aurizkitu zen, eta legez boto emateko eskubidea ere bai; eta Sabinoren iritziz, hautespen eskubidea legez kentzea, anarkistei egin zitzaien bezala, ez zen hain bidegabea izango. Gertakizun horiek guztiak ikusirik, Sabinok aldatu egin zuen bere planteamendu publikoa.

EAJri "ez zaio bakerik eman", "beretzat indarrean dagoena ez da legea, baizik eta indarraren legea". "Honek guztiak eskuartetik ihes egiten digu". Horiexek esan zituen Sabinok, eta ondoren, proposamen berri bat aurkeztu zuen:

{ Sabino Aranaren beraren **proposamen pertsonala** izan zen; hasieran, anonimoa, eta ondoren, agerikoa.

{ Planteamendu horren **oinarriak** ondokoak dira: 1.- Espainiako subiranotasuna onartzea. 2.- Euzkadiren independentziari uko egitea. "Euskal Herriaren izaera politikoa ezetsi egin dugu, burujabea izateari dagokionez, baina ez haren gizarte izaera eta izaera etniko ezberdina".

{ Horren **helburua**, argi eta garbi, taktikoa izan zen, eta ez zettorren bat doktrinarekin. Inguruabarrek eraginda, azalekoa aldatu nahi zuten, funtsezkoa lortu ahal izateko. Ez zen espainiarra sentitzen, baizik eta euskalduna jatorriz; espainiarra hiritarren eremu juridiko-publikoan baino ez zen, eta ez zen inoiz Espainiako Estatuaren batasunaren alde agertu. "... Konturatzen bazara abertzalea izanik ezin duzula zure Aberriaren alde ezer egin, eta atzerrizalea izanik, ordea, gauza asko lor ditzakezula, zertara behartzen zaitu Aberriak, abertzaletasunak...?".

Amaitu gabe utzi zuen testu batean, bere pentsakera azaldu nahi zuenean, ondokoa idatzi zuen: "Uste dut heldu dela une egokia atzera egiten dugulako itxura erakusteko gure abertzaleen kopurua gehitu ahal izateko, arrisku gabe gogor jarduteko, eta isilpean gure bideak Iparralderantz zuzentzeko..." "Berehala, bururatu zait ideia hori salbamenerako izango zela, baldin eta behar bezala praktikan burutzen badugu; gure garaipena ziurra izango dela eta laster lortuko dugula iruditzen zait; Euzkadiren independentzia Ingalaterraren babespean lortuko dugu eta hemendik denbora laburrera..." "Mugimendu hau defentsarako dela badirudi ere, oldarrerakoa da. Etsaiak ez du somatuko... oharkabe harrapatuko dugu... Hau ez da amore ematea; gure Alderdiaren izaera ondo ezagutu behar da".

Dena den, Sabino politika mugimendu zabal baten alde agertu zen, atzerritar tankera hartzeko arriskuan zeuden Euskal Herriaren oinarritzko ezaugarriak zaintzeko eta klandestinitatearen ghetismoa ekiditeko. Agian, beregan Kataluniako "Liga Regionalista"ren sorrerak ere izan zuen

eraginik, hots, Kataluniaren kultur ezaugarriak berrindartu zituen eta politika mugimendu zabal bat sortu zuenak.

Sabinok bere iritziaren alde egoteko eskatu zuen eta Egitarau eta Antolaketa "*militar*" bat idazten jardun zuen; horiek Euzkadi osoan pertsona baten agintepean egon beharko ziren, eta horrek lurralde bakoitzerako bana izendatu beharko zuen, eta ondoren, horiek hiri bakoitzerako beste kargudun bana. **Proposamen hori ez zen ekintzetan gauzatu.** Euskaldun espanyolisten Liga ez zen inoiz eratu. Sabino 1903ko azaroaren 25ean hil zen. Berarekin desagertu zen egitasmoa, urtebete soilik iraun ondoren.

Sabinoren ondoren, bazegoen sektore bat, denetarik pragamatikoena zena eta Sota buru gisa zuena. Sektore hori, hain zuzen ere, "*bilakaera*"rekin aurrera egiten saiatu zen. Baina horren alde ez zen azaldu ez Angel Zabala (Kondaño), Sabinok bere ondorengo izeneztatu zuena, ez Luis Arana, ez alderdiaren sortzailearengandik hurbilen zeuden abertzaleak eurak ere.

1904ko urtarrileko artikulua batean Miguel Cortés Nabarro (Garriz) adiskidetzat lortzeko konponbide antzeko bat proposatu zuen: "*euskal abertzaletasunaren helburua foruen berrintegrazio osoa lortzea da eta 1839ko urriaren 25eko Legea indargabetzea*". Bai pragmatikoen iritziz, bai independentziaren aldeko erradikalenen iritziz, konponbide hori beraien helburuak lortzeko bidea zen.

Gertaera horrek, gainera, Sabinoren jarduteko modua zein zen erakutsi digu. Doktrinaren planteamenduetan erradikala izan zen, baina politikaren arloko ekinbideetan pragmatiko agertzen zen oso eta bere herriaren onerako emaitza zehatz eta onak, eta euskal nazioaren iraupena lortzen ahalegindu zen.

III.- Zatiketak

Badirudi Liga eratzeke ahaleginak izan zuen porrotak tirabira eta zatiketak ekarriko zituela, eta egia esan, gertatu egin ziren.

Sabinoren ekimen zehatz horrez aparte, eta Sotaren taldea, 1898ko "Euskalerrria" elkarte foruzaletik zetorrena EAJren barnean sartu zenetik, EAJren barruan bi mugimendu bereizi egon ziren: **independentziazaleak**, Sabinoren aldeko erradikal edo ortodoxoak, eta **posibilistak**, autonomiaren aldekoak, heterodoxoak.

Esan dugunez, Garriz foruak berrezartzearen alde azaldu zen. Konponbide hori mugimendu bakoitzak era ezberdinean ulertu zuen, baina, hala ere, konponbide horri esker, batasunak iraun egin zuen.

Dena dela, kontutan izan behar da alderdi edo erakunde politiko batean, edo ideologi oinarri sendo baina helburu lorgaitzak dituen alderdi edo erakunde batean, ia inoiz ez dela konpondu ahal izan **erradikal** eta **posibilisten**, **benetakoen** eta **moldakorren**, fundamentalisten eta pragmatikoen arteko banaketa. Alderdiari kanpotik egiten zaion txantaila, norbanakoen helburuak, infiltrazioa etab. albo batera utzita ere, pertsonen izaeraren eta zenbait egoera txarren ondorioz banaketara irits daiteke, nahiz eta hori taktikoa izan, eta maiz erabateko zatiketara ere bai.

EAJ horretan ez da salbuespena izan. Banaketa "ab origine" hori suertatu zenean, lehenengo eta behin alderdikideak alderditik ohildu ziren, bai ortodoxoak bai heterodoxoak, Alderdiaren zuzendaritzan zegoen gehiengoaren arabera.

1896an ohildu ziren alderdikideak lehen aldiz, "egunkari espanyolistekin" batera lanean aritzeagatik. Ohildu zenetariko bat Teófilo Guiard izan zen; horrek geroago Alderdiaren konfidantza bereganatu zuen eta "Baserritarra"ren zuzendari bihurtu zen; ondoren Sabino bera ere zuzendari izan zen horretan. Felipe Zabala, "La Patria"ren sortzaile, jabe eta zuzendaria ere kargugabetu eta ohildu zuten.

Horiek guztiak "Euskalerra"koak ziren. Horiekin 1906an tirabira larriak izan ziren, alderdiak Ekonomi Ituna berritzeko lanetan parte hartzearen alde agertu zirelako; partehartze horren kontra, "ortodoxoak" azaldu ziren. Orduan, Eduardo de Landeta, Sotari lotu-lotua zegoena, ohildu zuten.

Lehen zatiketean, hau da "Partido Nacionalista Vasco Liberal" (1910) eta "Partido Republicano Nacionalista Vasco" (1911), Francisco de Ulazia izan zen buru, eta beraz, alderdi bakartzat har daitezke. Azken honek Alderdiaren "konfesiogabetasuna" eskatu zuen eta horrek "Jaungoikoa eta Lege zarra" hasierako lemaen aurka jarri zuen.

Zatiketa horiek ez zuten ondorio larririk ekarri, eta ez ziren fundatzaileez urrunago joan. Baina, hala ere, ideologiaren arloan arazo bat sortu zuten, eta arazo hori geroago EAE-ANVren eraketaren oinarrian kokatu zen.

1914an, Bizkai Buru Batzar eta Euzkadi Buru Batzarreko Lehendakari Luis Arana hautatu zuten. Sasoi hartan, Engracio de Aranzadi (Kiskitza) "Euzkadi" Alderdiaren egunkariaren arima zen. Luis Arana ortodoxoa eta germanofiloa zen eta Kizkitzaren egunkariaren gidalero batzuekin ez zetorren bat; Kiskitza heterodoxoa eta aliatuzalea zen. EBBko hiru kidek Kiskitzari eskaini zioten laguntza. Hori zela eta, Aranak isilpean hauteskunde itun bat sinatu zuenez gero, beste hiru burukideek Arana kargutik kendu zuten. Aranak ez zuen hori onartu, eta alderditik ohildu egin zuten. "Gudari Abertzaleen Alkarte" bat oinarritzat hartuta, "Euzkeldun Batzokija" eratu zuen berriro; horrek ez zuen ia eraginik izan politikaren munduan, salbu eta Aranak berak zuen prestigioa zabaltzea.

1916an, Donostiako Batzarrean Alderdiak Comución izena hartu zuen, eta berorren zuzendaritzan pragmatikoak izan ziren nagusi.

Tirabira horiek pil-pilean zeudela, 1920ko otsailean Napar Buru Batzarrak ondoko adierazpena argitaratu zuen: *"Lortu nahi dugun gauza bakarra Nafarroak eta Euskal Herri osoak, alegia, Euzkadik, 1839an zuen askatasuna berreskuratzea da. Gainera, adierazten dugu ez garelak bereizaleak, eta ez garelak inoiz izan, ezta izan nahi ere; Espainiaren (eta ez Espainiarekin) batasuna nahi dugula 'Unión aequae principal' foruaren tradiziozko erara..."*.

"Euzkadi" egunkari ofizialean agertu zen adierazpen horri Aberri aldizkariak (Euskal Gazteriaren Agerkaria) erantzun zion:

"... gure asmoa ez da soilik Nafarroak 1839an zuen askatasuna berreskuratzea, baizik eta Euzkadiren independentzia osoa lortzea..."

1921ean, Kiskitzak "Euzkadi"n artikulua bat argitaratu zuen, eta bertan adierazi zuen **independentziaren helburua ez zela abertzaletasunaren funtsetako bat...** Euzkadi Buru Batzarrak Aberri Comución-eko diziplinatik bereiztu zuen, eta Eleizaldeek disidenteak ohiltzeko ere eskatu zuen.

Adiskidetza lortzeko ahalegin bat izan zen, eta horretan Euzkadi Buru Batzarra eta "Euzkadi" egunkariko Kontseilua kargutik kentzea proposatu zen aparteko Aberri Batzar batean. Baldintza horiek ez ziren onartu, eta Elías Gallastegi, J.M. Errasti, Telesforo Uribe-Etxebarria eta Luis de Vitorika, Euzko Gaztediko buru nagusiak, Comución Nacionalista Vasca alderditik ohildu zituzten.

Euzko Gaztediko "Aberri" zaleen kanpaina zela eta, EBBk bere kideetako bat, Manu Egileor, ohildu zuen eta bai "Aberri"ko tesien alde azaldu ziren Batzokietako Batzarretako kide (9) ziren Udal Batza (7), Euzko Gaztediko erakunde, zentro, elkarte, agerkari (Euzko Deya) guztiak ere. Batzar Nagusian Bilboko Euzko Gaztediren erreakzioa ondokoa izan zen: mantentzen ziren jarrerak onartzea eta ohildu ziren erakundeak batzea beraien jarduera politikoarekin aurrera egin zitzaten "*Arana-Goiri Maisuaren doktrinak defendatzen eta hedatzen...*".

1921eko irailaren 4an, Euzko Gaztediren Batzarrean, Euzko Alderdi Jeltzalea eratu zen berriro, eta behin betiko banaketa egin zen: Comución Nacionalista Vasca eta Euzko Alderdi Jeltzalea. Azken horrek Bizkaitik kanpo ez zuen ia eraginik izan eta bi buru batzar besterik ez zuen, bata Bizkaian eta bestea Gipuzkoan. Hala ere, 1922ko udal hauteskundeetan, Comución alderdiak 4 zinegotzi izan zituen Bilbon eta Alderdiak 9; gainera, azken hau nagusi izan zen Barakaldon.

Luis Aranak eta Euzkeldun Batzokija-ko horren lagunek zatiketarekin bat egin zuten. Alderdiaren barruan zatiketaren bat egon zen, Barakaldoko Euzko Gaztedirena; horrek, aldi berean, "Partido Nacional Vasco" delakoa eratu zuen, eta hori gero Eusko Abertzale Ekintzan sartu zen.

1923an Primo de Riveraren diktadurak legezurkakotasuna ekarri zuen eta, ondorioz, bi Alderdien klandestinitatean eragin zuen; Comución-ek jarduera politikotik irtetea erabaki zuen.

Diktaduraren amaieran, 1930ean, zatiketaren garaian irainik eta laidorik jasan ez zuten eta bi Alderdi abertzaleetakoak ziren gazteek ekimen bat burutu zuten, eta ekimen horrexek eman zion bidea berrelkarketari; berrelkarketa hori Comución-eko Batzar Nagusiak onetsi zuen Bergaran 1930eko azaroaren 1ean. Hil bereko 16an eta toki berean bi alderdi politikoen baterako Batzar bat egin zen; Batzar horretan berrelkarketa burutu zen JEL lema pean eta Euzko Alderdi Jeltzalea izenarekin.

Baina birrelkarketa horrekin **beste zatiketa bat** gertatu zen. Comución-eko talde batek uste izan zuen bere doktrina berritzeko igurikizunek porrot egin zutela, batez ere Sabinoren ideiak indartuta zeudelako eta Jel lema mantendu egiten zelako. Pentsakera liberalekoak ziren eta erlijioaren eta aberriaren arloak bereiztea aldarrikatzen zuten; gainera, Errepublikaren aldeko igurikizunen eremuan murgiltzen ziren eta, batez ere, alderdi errepublikarren eta ezker aldekoen joerakoak ziren, eta ez foruzale eta katolikoen alderdietakoen joerakoak. 1930eko azaroaren 30ean, San Andreseko adierazpena argitaratu zuten, eta horrekin jaio zen Eusko Abertzale Ekintza.

Horien doktrinaren bilakaera izan zen Sabino Aranaren ideietatik urrundu zen lehena; EAJren aldean ez zuen ia eraginik izan eta, batez ere, Bizkaian izan zuen indarra eta zerbait Gipuzkoan, eta hiriko alderdia zen argi eta garbi.

{ JAGI - JAGI (1934):

Izen bereko astekaria 1932an sortu zen eta Sabinoren ideien defendatzaile sutsua izan zen. 1934ko udatik aurrera Bizkaiko Mendigoxale Batzaren bozeramaile izan zen, eta horrek Jagi-Jagi

mugimendua sustatu zuen. Mugimendu horretako buru nagusiak Elías Gallastegi eta Manuel de la Sota izan ziren.

Bi aldiz desagertu zen eta berriz agertu. Mugimendu horren indarra erabat gutxitu zen Luis Aranak 1933an Bizkai Buru Batzar-Euzkadi Buru Batzar utzi zuenean. Hortik aurrera prozesu bikoitza jasan zuen, alegia, erradikalizazioa eta bazterkeria; badirudi bazterturik geratu zela erradikalizatu egin zelako edo alderantziz.

Espainiako botere zapaltzailearekin parte hartzeari edo lan egiteari uko egin zion, adibidez: goi-lautada eta Bizkaiko golkoaren arteko trenbide konexioaren arazoan, eta horren inguruan sortu zen arazoan, Santanderrekin konexioa izatea nahiago izan zuten, Bilborekin baino, horretara trenbidea espagnolizatorako tresna bihurtzea ekiditeko; gure herriarentzat larriak izan ziren uneetan ere, gerra zibilean parte hartzeari eta 1936ko Autonomi Estatutua onartzeari uko egin zion.

EAJk defendatzen eta Jagi-Jagik arbuizatzen zuen Estatutuen prozesuan hainbat irain gogor izan ziren, eta horrek Jagi-Jagi Alderdiaren agintzapetik banatzea eragin zuen.

Jagi-Jagik ezin izan zuen inoiz hauteskundera aurkeztu, ez baitzuen horretarako behar beste ordezkari. Hori dela eta, alternatiba gisa 1934ko azaroan bertan Frente Nacional Vasco sortu zuen, abertzale guztiak bertan biltzeko.

{ EUZKADI TA ASKATASUNA (1959):

Bigarren mundu gerran, EAJko agintaritzak Burgosko gartzelatik Aliatuen alde agertu zen eta Ardatzeko potentzien aurka. EAJk Euzkadin eta Euzkaditik kanpo gerra hartan bete-betean eskaini zuen bere laguntza.

Hitler eta Mussolini agintetik kendu zituztenean, bazegoen "balio jakin" bat Francoren erregimena ere desagertaraziko zenekoa. Atzerrian zegoen Eusko Jaurlaritzaren eta Euzko Alderdi Jeltzalearen politikaren interesgune nagusia planteamendu hori izan zen.

Dena den, Mendebalde-Ekialde arteko tirabiraren eta gerra hotzaren testuinguruaren ondorioz, mendebaldekoek Francoren erregimenean bermeren baten bila ibili ziren Stalinen mehatxuari aurre egin ahal izateko, eta gainera, Diktadorea etsai izatetik aliatu izatera pasatu zen; horrela, abertzaleen eta demokrata guztien itxaropenak ezerezean geratu ziren. 1953an, Espainia eta Iparramerikaren arteko Itunbena sinatu zen. Horrekin nazioarteko laguntzarik jasotzeko itxaropenik txikiena ere desagertu egin zen, eta Amerikak berak eta berari loturiko zerbitzuek erregimenaren aurka burutzen zen edozein jardura gaitzetsi egiten zuten. Euskal Aberriaren eta demokraziaren xedeak garai hobeak heldu arte itxaron behar izan zuen.

Gazte talde bat sortu zen, gerran parte hartu ez zuena eta Jaurlaritzaren eta Alderdiaren jarduketarekin bat ez zetorrena; horiek beste era bateko planteamendua aldarrikatzen zuten, alegia, indarkeria erabiltzea orduan zegoen indarkeriari aurre egiteko.

Talde horrek EKIN zuen izena eta Alderdiaren agintepetik banatu zen 1958ko maiatzean, eta berarekin batera EGI taldea, batez ere Gipuzkoakoa. 1959ko uztailaren 31n "mugimendu abertzale" gisa eratu ziren, ez erakunde politiko gisa, eta Euzkadi Ta Askatasuna (ETA) hartu zuten izentzat.

1962an egin zuten lehen Batzarrera arte, beraien ideiek ondoko ezaugarriak zituzten: 1) Birsorketa historikoa, Euskal Herriko historiaren ekintza nabarmenenak Aberriaren eraikintzaren prozesuko gailurtzat harturik; 2) Euskera dela eta ez etnia abertzaletasunaren oinarritzko elementua uste izatea; 3) Konfesiogabetasuna, Elizaren Hierarkia beren beregi arbuiatzea, baina horren doktrina onartzea gizarte egitarau bat gertutzeko abiapuntutzat; 4) Antikomunismo ideologikoa, nahiz eta ekintzarako metodo gisa onartu; 5) Euzkadiren independentzia eta berau Europako federalismoaren barruan onartzea.

ETAko munduaren kontzepzioa izpirituala eta humanista izan zen, harik eta urteak garrenean marxismoa onartu zuen arte.

{ EUSKO ALKARTASUNA (1986):

Azken zatiketa hau guztion gogoan eta ariman dago oraindik. Euzko Alderdi Jeltzaleak indar gehien zuen eta Euzkadin indar hegemoniko abertzale bat izateko beharizan handiena egon zen garaian jazo zen, Katalunian hegemonia abertzaleak izan dituen emaitzak ikusten ditugunaldi berean.

Zatiketa horren kariak konplexuak izan ziren eta ez ziren argiegi azaldu, esaterako: klandestinitatean gerra hotzaren aurkako jarrerak izan zituzten gertakari eta planteamenduak; EAJren izaera politikoa eta antolaketa ia ezagutzen ez zuten alderdikide gehiegi eta arinegi onartu izana; abaguneko kariak, batez ere kalkulu politikoari zegozkionak; boterea lortzeko borrokak eta norberekeria. Beraz, Lurralde Historikoei buruzko Legea izan dela zatiketa horren kari ideologikoa edo eragilea esatea arazoa gehiegi sinplifikatzea da.

Gure Alderdiaren eta gure herriaren historia guztion epaile izango da.

IV.- EAJ eta indarkeriaren baliabidea

Jakina da Sabino Aranak politikaren eremuan baino ez zuela jardun, indarkeria baliabidetzat inoiz erabili gabe, ezta eremu teorikoan bertan ere. Agian azken karlistadan bere familiak izan zuen esperientzia izugarriak eragin zuen hori; edo bestela gerra hark Euskal Herriko Hegoaldera ekarri zuen heriotza eta hondamendi ikaragarriak, eta horren ondoren gazteen artean izan zen herralda etengabeak, elkarrenganako gorrotoak, Erakunde historikoak desagertzeak, etab.

P. Mauro Elizondok, iturri sinesgarrietan oinarriturik, esan zuen 1897an Sabinok erabaki zuela "El Partido Carlista y los Fueros Vasco-nabarro" orria argitaratzea, karlistek Bilboko koartela eraso eta hartzeko zuten asmoa galarazteko.

Hala ere, garai hartako gertakari batzuek erakusten dutenez, armak erabiltzeari buruzko hausnarketa ere kontutan hartu zen. José de Arriandiagak, 1903ko abuztuaren 23an "Sabinoren bilakaera españolista"ri buruz Luis Aranari bidali zion eskutitz batean, argi utzi zuen gerraren baliabidea ez zela bidezkoa: *"Armada eratzea. Bizkaiko zati batek badaki zer den abertzaletasuna; Gipuzkoan, Nafarroan eta Araban, ordea, ez dakite zer den. Zenbat denbora behar izango da laurak horren berri izan eta lau armada abertzale era ditzaten, karlismoa ezagutu eta lau armada karlista eratu zituztenean egin zuten bezala? Gainera: zein armada beharko genuke independentzia lortu ahal izateko?"*

"Gutxienez jota, hogeita hamar mila edo berrogei mila gizon; eta horiek edukita ere, lortuko al genuke gure asmoa? (eta penintsulako Euskal Herriari buruz baino ez naiz ari. Ezen, Pirinioetakoa alde batera uzten badugu, egitasmo horrek ez luke arrakasta lortzeko inolako aukerarik izango)."

"Amets hutsa da pentsatzea Euzko Alderdi Jeltzaleak aurrera eta gora egingo duela eta, denbora aurrera joan ahala, hogeita hamar edo berrogei mila gizoneko armada bat izango duela... Beraz, gaur egungo bidea ez da arrakasta izatera eramango gaituena. Gure etsaien handitasunaren aurrean txikiak izango gara beti, gauzak orain arte bezala jarraitzen badute behinik behin".

Mota horretako adierazpen pribatu horiez aparte, arazo horretaz ez zen inoiz jendaurrean eztabaidarik izan.

Izan ere, Sabinoren moral katolikoa eta haren pentsakera politikoa funts gisa hartuta, etikaren aldetik ez legoke eragozpenik oldarrerako eta zatiketarako eskubideaz baliatzeko. Aurretik izan ziren gerrek eta batzuek egindako gogoetek, adibidez, Arriandiagak, bide hori ez hartzea gomendatzen zuten, eta hori praktika arloko konponbidea izan zen.

Lizarrako Estatutua eztabaidatu zenean, gogora dezagun proiektua euskal udalek onetsi zutela 1931ko ekainaren 14an Luis Aranak euskal armada bat eratzeari buruz idatzi zuen, estatutuen eskumenen esparruan.

Geroago, 1936an, Manuel Egileorrek, Sabin Etxeko Euzko Idazkaritza Burubaren zuzendari izan zen Aberri zaleak, liburu bat idatzi zuen: Nacionalismo Vasco. Liburu horretako atal batean, "Borrokarako bideak" delakoan, adierazi zuen "legezko" bideak ez zirela gai independentziaren arazoa konpontzeko: *"... Zeren eta ez baitago lurtean Estaturik, zapalduta duen herriari independentzia politikorik emango dionik. Eta askoz zailagoa da Espainiak eta Frantziak Euzkadiri ematea, beraien Historiari erreparatuz gero! Kuba, Filipinak, Hegoamerikako herriak, Maroko, Aljeria, Britainia eta beste asko dira horren adibiderik argiena."*

"'Legezko' ekintza baten bidez autonomia lor daiteke neurri handi edo txiki batean, ia askatasun osoa, baina beti ere menperatzailearen kontrolpean. Baina horrek ez du inoiz lehen urratsa emango gure gain duen menperakuntza deuseztatzeko. Gainean daramagun katea hau arindu eta luzatu egingo dute, zapaltzaileak ez digu inoiz ekintza-eremu zabalago bat emango, baina ez du katea hori utziko eta gu askatuko".

Honela amaitzen du Egileorrek atal hori: *"... zalantza-izpirik gabe, menperatzailearen ustez 'legez kanpokoak', eta gure ustez bidezkoak diren prozedurek, alegia, **indar**-prozedurek emango digute bidea gure askatasuna jaresteko, menperaturik egon diren beste herri batzuei eman dien legez."*

"Bitartean eta orduan eta beti -esan zigun Sabinok- nazioarteko bizitzaren praktikan, zuzenbidearen funts bakarra indarra izango da. Hori bereganatzen duenak independentzia lortuko du. Inoren morroia bada... Hori ez duenak ez dezala ahaleginik ez saiakerarik egin, bestela iraina eta heriotzea baino ez du lortuko eta."

*"Gauzak horretan dautza, gure Maisuak adierazi zigun legez, eta errealtatean bizi nahi badugu kontu handiz egin behar diegu aurre, **ados egon behar dugu guztiok indarrez baino ezin dugula askatasuna lortu, eta gure jarduketa horretara moldatu behar dugu**".*

V.- 2. Errepublika

{ Donostiako ituna:

Primo de Rivera-Berengueren diktadura azken arnasetan zegoela, 1930eko abuztuaren 17an, Gipuzkoako errepublikarrek bilera bat antolatu zuten, eta errepublikanismo, sozialismo eta katalanismo erradikalaren ordezkari ospetsuak joan ziren bertara, euren izenean. Espainia eraldatzeko egin zituzten akordioak "Donostiako Itunean" (Pacto de San Sebastián) isladatu ziren.

1931ko apirilean, Ituna sinatu zutenak Cárcel Modelotik Behin-behineko Gobernura igaro ziren, Errepublika aldarrikatu eta honen Konstituzioa eta autonomi egitura taxutuz.

Euzko Alderdi Jeltzaleak ez zuen Donostiako Itunean esku hartu. Garai hartan Alderdia ez zen Itun haren garrantziaz jabetu, ezen hori denbora garrean nabarmendu zen. Egia esan, EAJk ez zuen, sasoi hartan behinik behin, errepublikar eta sozialistekin bat egin, indar laiko eta antiklerikalak zirelako. EAJ katolikoa zen oinarri-oinarrian. Horrez gain, Alderdiak, foruei eta autonomiari buruzko eskakizunei zihoakienean, ahaidekoagotzat jo zituen alderdi foruzale-integristak, zein Errepublikaren aurka azaldu baitziren, eta gogorki azaldu ere. Itunean esku ez hartzeak eta aipatu alderdi horiekin bat egin ezinak foro guztietan parte hartzeko grina bizia eragin zuen Alderdiarengan, bai atzerrian, demokristauen mugimenduaren eta mugimendu europazalearen sorkuntzan batik bat, bai Francoren aurkako oposizioan, frankismoaren lehen urteetako konspirazio monarkikoan eta diktaduraren azken urteetako Batza Demokratikoan (Junta Democrática) eta Platajuntan esku hartuz. Ekimen guztietan parte hartuz, alegia, *"Suhiltzaileen Kongresua izanda ere"*, Agirre lehendakariak esan zuenez.

{ Estatutua eta Nafarroaren arazoa:

Lizarrako Estatutuak eragin zuen egoera baikorraren eta Autodeterminazioaren eta Burujabetasunerako Eskubidearen lehenengo aldarrikapenen ostean, orduan azaldu ziren kontuak.

EAJk ez zuen onetsi Errepublikaren Konstituzioa (funtsean erlijiozko arrazoiak zirela bide) eta indar politiko ez-fidagarritzat hartu zuen Errepublikako erregimenak. Madrilgo Gobernuak, Gestoren bidez ("hatzamarrez" izendaturiko diputazioen bidez, zein erregimen berriko pertsonaia ospetsuek osatzen baitzituzten), Estatutuarekiko liskarra birbideratu zuen, Konstituzioaren xedapenetara moldatuz. Nafarroa bereizi egin zen baterako Estatututik, jardunbide ilunak erabiliz eta erabateko azpikeriaz.

EAJren barruan gordinki eztabaidatu zen Nafarroa gabe aurrera jo behar zen ala abagune hartan eskuratu ahal zen edozein lorpeni lehenespena eman behar zitzaion.

Manuel Irujo jaunak, garai hartan Madrilen diputatu zenak, gutun gordina idatzi zion bere taldeburu Agirre jaunari. Merezki du gutun horren edukina, Salamancako zorigaiztoko agiritegian dagoena, oso-osorik erasotzea:

"Jose Antonio adiskidea: nire ikuspegiak, Estatutuaren arazo adurgaiztoko honi dagokionean zuenarekiko hain bestelakoa denak, garrastu egin dit bizitza, aldioroko aurkari eta liztor kinakari bilakatu beharrak, alegia; hain justu ere, aurkariaren lana soilik egitea aspalditik suertatu zaidan arren, amaitutzat emango dut auzi hori, zeren ez baitut nahi nigatik inoren bizitza

nahasterik, ez Alderdiaren eta Aberriaren arazoan bilakaera korapilatzerik. EAJ, zuen iradokizunei oniritziz, Araba, Bizkai eta Gipuzkoaren Estatutuaren jardule nagusi bilakatu da". Hala esan du Euzkadi Buru Batzarrak eta hala argitaratu dute egunkariek.

"Gainera, baldin eta EAJk orori aurrea hartu badio Araba, Bizkai eta Gipuzkoaren Estatutua beretzakotzen, zer arrazoi eman dezake Nafarroan Nafarroako Estatutuaren alde ez azaltzeko?. Ezen, egia esan, egoera berbera izango litzateke. Areago: Araba, Bizkai eta Gipuzkoaren Estatutuak ere beste artikulua bat jasoko luke, euskaldunen arteko batasuna bideratuko lukeena, hain zuzen. Gaur egun horren alde azalduko lirateke ezkerreko alderdiak, ezkerreko alderdiak eta bai eskuinekoak ere. Dena den, artikulua hori, zuok zeuenari erantsi diozuen bezala, literatura atsegina izaten jarraituko luke, Madrileko Kongresuak erabat arbuatuko lukeena."

"Estatuturik ez edukitzea txarra dela? Bai, badakit; baina askoz txarragoa da bi Estatutu egotea eta bederen Konstituzioak irauten duen artean banaketa iraunkorra izatea."

"Zer dela eta ez da aurrera atera nahi Euskal Estatutu bakarra?. Ez omen da ezer lortuko: ez dakigu. Baina, nolana ere, abertzaleok proposamen horren alde lan egitea zentzuzkoa baino zentzuzkoagoa izango litzateke. Hain zentzuzkoa al da zuok egun burutzen ari zareten kudeaketaren esparruan?"

"Orduak eta orduak eman nituen gutunak idazten, hitz egiten eta zuoi guztioi Nafarroa begira dezazuela erregutzen; literatura hutsezkoak baino ez diren kanpoko itxurez ez fidatzeko, horiek ez baitute sakoneko edukirik isladatzen; Gotzainari kristau legez jokatzera behartzeko, harengana joz, behar izanez gero Erromara joanez, Estatutuak ahalegin guztiak egitea merezi du eta; hori guztia argitzen zuten gotzainaren gutunak bidali nitzizuen, eta ohartarazi ere Kristoa hartu eta hura plazara ateraz gero izango genuen arrisku ezin latzagoa; Batzarraren antolaketa, kartel eraskarriak, hegazkinak, karabanak... eskatu nitzizuen: Alkateekin Gasteizen egin zenutena egin beharraz behin eta berriro mintzatu nintzaizuen, hots, beraien herrietara joan eta jaten eman beharraz, haiekiko harremani eusteko xedez... Batzarraren ekitaldian bertan ere Nafarroa ondo zegoela uste zenuen zuk eta!, eta horregatik, ez beste ezerengatik, joan zinen, zorigaitzoko orduan joan ere, Nafarroa bereizirik uzten zuen zatikako batzar hartara...!"

"Tira ba, Agirre adiskidea; nik neuk etsi dut, eta etsita daudenekin ezin joan daiteke inora. Jarrai ezazue zuok Alderdia sustatzen, eta gerta dadila gertatu beharrekoa. Zu zuzen edo oker egon, nik azken jelkidea izaten jarraituko dut, geroz eta nafarragoa, geroz eta euskaldunagoa eta geroz eta abertzaleagoa. Baina beldur naiz, oso beldur gainera, zu oker zauden eta bereiziko gaituzun, ez betiko, ezen betikorik ez dago hemen, baina bai urte askotarako".

Hitz gordinokin planteatu zen garai hartan ere "Nafarroaren arazoa". Bada gutun horretan Agirreren eta diputatuen aurkako isilbidezko salaketa: **"Euzko Alderdi Jeltzalea, zuon iradokizunei men eginez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoaren Estatutuaren jardule nagusi bilakatu da".** Hala ere, EAJkorik gehienek gurago izan zuten Estatutu bat edukitzea, euskal lurralde guztiak hartzen ez bazituen ere, ezer ez edukitzea baino, epe jakin batean behinik behin. Katalunian ere arazo berbera zegoen, hots, "Països Catalans" guztiak bateratzearen arazoa.

Eztabaida hori berriro planteatu izan da egungo demokraziaren garaian, baina arazo hori aurrerago azalduko dugu.

{ **Eskuineko ala ezkerreko alderdiekin:**

Ideologiaz marxista diren alderdiek, betiko topikoari eutsiz, EAJ eskuineko alderditzat hartu ohi dute. Horiek gizarteaz eta gizarte mailen arteko borrokaz duten ideiari dagokienez, langilegoaren alde eta burgesiaren aurka azaltzen ez den oro eskuinekotzat hartzen da. EAJ, ostera, gizarte maila guztiek osatzen dute, eta bitxia iruditzen arren, gaur egun era berekoak dira jatorri marxista duten alderdi handiak.

Badakigu, baita, Errepublika garaian EAJk bat egin zuena hasieran eskuineko euskal alderdi foruzaleekin, sozialistei eta errepublikarrei aurre egiteko; bategite horrek bi arrazoi zuen: alde batetik, Estatutua lortu nahia, eta bestetik, Euskal Herriko ia biztanle guztien kristautasuna, EAJren kideen ezaugarri behinenetariko zena.

Espainiako eskuinak, eta harekin batera euskal eskuinak, agintea eskuratu zuenean, ordea, Estatutua baztertzeko hasi zen, eta beraz, EAJk indar errepublikarrekin egin zuen bat harrezkero.

Ez dugu ahaztu behar, garrantzi handikoa izan zen eta, Elizaren agintariak eta Vatikanokoak berak indar handia erabili zutela EAJk "biurteko beltza" (1933-35) ekarri zuten hauteskundeetan eskuineko alderdiekin bat egin zezan. Geroago, 1936ko urtarrilean, diputatu jeltzaleek Vatikanoko jauregitik irten egin ziren, Aita Santuaren atalaurrean zeudela, harekiko entzunaldia Alderdiak hauteskundeetan eskuindarrekin bat egitearen baldintzapean jarri baitzien Aita Santuak.

Hauteskunde garaiko estrategiak gorabehera, Agirrek 1931ko abuztuan eman zuen hitzaldi baten lerrokada batean zehaztua zuen ordurako EAJk arazo honetaz zuen jarrera, Alderdi osoaren onirizpean: "... *Gu, aipatu dudan kontzeptu kontu horri doakionez, baldin eta eskuinekoa izatea demokraziaren aurrerapen zuzenen kontra egotea eta aginte absolutuen alde azaltzea bada, hori bada behinik behin eskuinekoa izatea, gu ezkerrekoak gara. Baldin eskuinekoa izatea edozein erregimenean izateari Erljioa berez loturik egotea bada, eliz aginteak eta aginte zibilak euren alorretan eduki behar duten erabateko lokabetasunaren kaltetan, hori horrela bada, orduan ere ezkerrekoak gara gu. Eta, gizarte alorrean, baldin eskuinekoa izatea langilegoaren aurrerapen zuzenen kontra egotea, egungo erregimena goitik behera eraldatzearen eta, areago, zuen helburuetan ez baitago, ekonomiaren egitura aldatzearen aurka azaltzea bada, hori bada eskuindarra izatea, orduan ere ezkerrekoak gara". "Aitzitik, ezkerrekoa izatea familiaren kontra eta Eliza Katolikoaren arau santuen aurka egotea bada, eta guk arau horiek gogoz hartzen ditugu aintzat, orduan, zuztarrik gabekotzat jotzen dugun kontzeptu kontu horretan, eskuinekoak gara".*

Garai hartan ondoko ezaugarriek zehazten zuten funtsean eskuineko izatea: katolikoa, gizarte eta ekonomiaren alorrean kontserbadorea eta monarkikoa. EAJ, egia esan, katolikoa zen bai, baina ez zen inoiz ere monarkikoa izan (Sabinok "Jaunaren" ikurra kendu zuen Bizkaiko armarritik), eta sortu zenetik gizarte eta lan alorreko ardura handia erakutsi izan du. Horren guztiaren erakusgarri, Agirrerren goiko testua ezezik, Aranaren idazkiak ere aipa ditzakegu, eta bai Urquijo diputatugaiarekin izan zuen kontratu politiko ospetsua eta EAJk sindikatu abertzalea sortu izana ere, Euskal Herriko indartsuena, nahiz eta Alderdiarekiko zeharo lokabe jardun.

Nolanahi ere, "biurteko beltzaren" ondoko gertaera latzek EAJ Frente Popular osatzen zuten indar politikoekin bat egitea eragin zuten, eta horren ondorioz, batera jardun zuten Espainiako gerra zibilean, espetxeetan, atzerriratzean eta Francoren aurkako oposizio osoan.

VI.- Gerra Zibila

1936 urtean, militarrek Errepublikaren aurka altxatu zirenean, EAJren barruan, hasiera batean bederen, ez zen argi egon nola jokatu behar zen eta jarrera desberdinak azaldu ziren. Luis Arana edo Eli Gallastegiren inibizioa gorabehera -gerra "espainolen arteko arazoa" zela baitzioten-, sektore batzuek, eliz agintariak altxamenduaren alde esku hartu zutelako edo Armadak atzemandako aldean suertatu zirelako, ez-baiezko jarrerak azaldu zituzten.

Uztailaren 18an bertan, Irujo eta Lasarte diputatu jeltzaleek Errepublikaren aldeko aldarrikapena egin zuten, Donostia irratian irakurritako ohar baten bidez.

Euzkadi Buru Batzarrak, ordea, egun horretan Donostian bildurik eta inolako albisterik gabe, Afrikan altxamendua gertatzen ari zelako zurrumurruak ez besterik, diputatuen banako ekimena deuseztatu zuen, eta ez zuen erabakirik batera hartu.

Kontutan hartu beharrekoa da Gasteiz eta Iruñea hasiera-hasieratik erori zirela Errepublikaren aurka altxatu zirenen eskuetan. Euzkadi Buru Batzarrak beren beregiko gaitzespen adierazpena egin izan bazuen, hormaren aurrean jarriko zituen Nafarroako eta Arabako jeltzaleak.

Hortaz, horrek guztiak banako aldarrikapen desberdinak egon izana eragin zuen, eta Bizkai Buru Batzarrak jarrera ofiziala hartu behar izana.

Dena den, testu hori Bizkai Buru Batzarrak idatzi bazuen ere, sinatu gabe eta EAJren izenean argitaratu zen, ezein Buru Batzarren izenik azaldu barik. Ziur aski, Euzkadi Buru Batzarrak Bizkai Buru Batzarrari emandako eskuordetzaren bidez egingo zen horretara, aipatu zioak direla bide. Honelako hitzak idatzi zituen garai hartan Bizkai Buru Batzarraren lehendakari zen Ajuriagerrak, uztailaren 19ko goizalde ikaragarri hartan: *"Albisteren bat entzuteko esperantza nuen, bateko edo beste erabakirik hartu beharrik ez izateko: alderdi batek edo besteak jadanik partida irabazia izatea. Gauak aurrera egin ahala, geroz eta argiago azaltzen ari zena ondokoa zen: militarren altxamendua eskuineko oligarkiak antolatu zuela, eta horren eslogana batasuna zen, Espainiaren batasun indarzalea, gezia legez gure aurka jaurtikia. Eskuindarrek ez zuten nahi Euskal Herrirako inolako autonomi estatuturik, eta oldartsu azaldu ziren horren aurka. Beste alde batetik, legezko Gobernuak agindua zigun eta bagenekien ekinean-ekinean lortuko genuena. Goizeko seietan, eztabaida luzeak erabili ondoren, erabakia hartu genuen, aho batez. Errepublikaren Gobernuaren alde azaltzeko adierazpena aldarrikatu genuen. Erabaki hori gogo handirik gabe hartu genuen, baina erabat sinetsirik Euskal Herriari onurarik gehien ekarriko zion alderdiaren aldeko apustua egin genuela; sinetsirik, halaber, beste alderdiaren aldeko apustua egin izan bagenu jeltzaleek gehienak gure kontra irtengo zirela".*

Ajuriagerrak aipatzen duen erabaki hori uztailaren 19an bertan argitaratu zen Euzkadi egunkarian. Testu historikoa da, abertzale orok ezagutu beharrekoa, eta abertzaletasun pragamatikoak Historiaren bidegurutze erabakiorretan norabidea inoiz ere ez duela galdu erakusten diguna. Honela dio:

"Estatu espainiarrean gertatzen ari direnak ikusirik, eta gertaerok Euzkadin eta beronen etorkizunean izan dezaketen eragin zuzen eta latza kontutan harturik, Euzko Alderdi Jeltzaleak - bere ideologiaren kalterik gabe eta egun ere bete-betean hari zeharo loturik- ondokoa adierazten du: hiritargoaren eta faszismoaren, Errepublikaren eta Monarkiaren arteko borrokaren aurrean, Alderdiaren printzipioek hiritargoaren eta Errepublikaren alde jartzera behartzen dutela, inolako

zalantzarik gabe, gure herriak, aske bizi izan zen mendeetan, berez izan zuen demokrazia
erregimen errepublikarrarekin bat etorritik".

Erabaki hark euskal abertzaletasunak gogor pairatu behar izan zuen gerra, odol eta atzerriratze tragedia latza hastea eragin zuen. Baina EAJ epel ibili izan balitz, ezen jeltzale bat baino gehiago epel ibili zen, eta areago, Buru Batzarretako jeltzaleak ere, gaur egun, ziur asko, ez ginateteke EAJren mendeurrena ospatzen egongo, eta euskal abertzaletasunaren gidaria ETaren fundamentalismoa edo beste siglaren bat izango litzateke, iraganeko esperientzia erabat ezabatuko zukeena.

1982ko otsailaren 23an gaubela egin zuten burukideek oso gogoan izan zuten 1936ko uztailaren 18an Sabin Etxean eta Euzkadi egunkarian igarotako arrats eta gaua. Gera bekigu, bada, EAJkoon oroimen historikoan gau tragiko hura, abertzaleen odol isuri ikaragarria eragin zuena, baina hala ere, jarrera egoki eta jokabide zuzen bakarra izan zena.

Euzkadi Buru Batzarra, lehenengo eta behin, ordena gordetzea antolatzen hasi zen, eta ondorik, Nafarroatik zetozen soldadu aldrea eta erreketeei aurre egiteko gudari talde edo gudarozteak eratzeari ekin zion. 1936ko abuztuaren bertan antolatu ziren lehenengo gudarozteak, EAJ, EAE eta ELAkoak batik bat. Urriaren abertzaleen gehiengoaz Eusko Jaurlaritza eratu zenean, Agirre Lehendakariak gerraren ardura hartu zuen Euzkadin.

Gerra galdu ondoren ere beti iraun izan du bizirik diktadorearen aurka indarrez jarduteko nahiak. Eusko Brigadaren gudari aukeratuak eta Euskal Herrian hautatu ziren Eusko Naia-ko gazte batzuk Parisen trebatu zituzten amerikarrek. Horien berehalako helburua Frantzia zeuden alemaniar gudari-taldeen aurka jardutea zen, aurrerago aliatuen laguntzaz Francoren aurka altxatzeko. Denbora askoan zehar, EAJk, Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzapean, gazte-talde nahikoa handiak zeuzkan eraturik, une egokian ekiteko xedez; baina, ikusi dugunez, gerra hotzak hutsean utzi zuen hori guztia.

EAJren antolamenduan beste prestakuntza eratu eta armatu bat ere bazegoen: ordena publikoa gordetzea, talde irregularrek inoizkotan eragin litzaketan liskarrak ekiditeko.

1936ko uztailaren bertan ere, Bilboko Sortzez Garbiaren Komentua erre zutenean, EBBk ohar bortitza igo zuen Gobernadoreari, halakorik inoiz ere ez gertatzeko neurri egokiak har zituzten gogorki eskatuz; horrez gain, argi jakinarazi zion, hala egin ezean EAJk *"bere kontura hartuko zituela neurriok, zeren inola ere ez baitzegoen prest eraikin, erakunde, erlijioso edo hiritarren aurkako erasorik txikiena ere onartzeko, pertsona horiek erregimenaren aldekoak ez izanik ere"*.

EAJk Dikaturaren amaierara arte eutsi zion politika horri. Orduan ere talde antolatuak eta ondo prestatuak izan zituen, gatazka larriak gertatzen zireneko, kontrolik gabeko taldeen ekintza armatuak ekiditeko.

Bereziki aipatzeko modukoa da Informazio Zerbitzu eraginkor baten eraketa, Alderdiaren bertsioa zena, barnean, eta geroago Agirrearen Jaurlaritzaren zuzendaritzapean garatuz joan zena. Gorabeherak, liskarrak eta urteak garrenean tentsioak sortu arren, lorpen izugarria izan zen, eta horretaz harro ere harro egon daiteke EAJ.

Halaber, aipatu beharrekoa dugu Alderdiak Ameriketako diasporakoekin etengabeko harremanak mantendu zituela frankismoan eta transizioan zehar, eta diktaturaren aurkako erresistentzia parte izan zuela.

Estatu Batuetan, Argentinan eta Mexikon, batez ere, eta Txile, Uruguai eta beste herri batzuetan bizi ziren euskal jatorriko sendietako norbanako ekarpen eskuzabalak gogoratu ditugula, uste dugu historiak ezartzen digun eginbidea betetzea dela Venezuelakoak nabarmentzeak, haiek antolaturik jardun zutelako.

Venezuelako euskal egoiliarrek hain eman zuten laguntza oparoa, ezen Joseba Rezolak haietaz esan baitzuen "Euskal Erresistentziaren lau zutabeetariko bat" zela.

Era berean, esan dezagun Alderdiaren historian antolaketaren arloan egintza garrantzitsua jazo zela Venezuelan, izan ere bertan sortu zen EGI izena, EAJren gazteen taldea lehengo Euzko Gazteditik bereizteko, hau ez zen Alderdikoa eta; "I" letrak "interior" esan nahi zuen, halaxe esaten ziotelako Hego Euzkadiri.

Hego Amerikako diasporakoek zapalkuntza eta jazarpen aldietan EAJren eta Euzkadiren alde egin zutenak gogoberotu egin behar gaitu gu orain, hango euskaldunekin jadanik baditugun harremanak, informazio-bideak eta ekintza-egitarauak areagotzeko.

VII.- Monarkia parlamentarioaren pean

a) Partaidetza:

Diktadorea hil aurretik, EAJ demokraziaren aldeko konspirazioan izan zen, mugaren alde honetatik erbesteko Eusko Jaurlaritzan parte hartzen zuten Alderdien arteko erakundearen baitan; hau da, Estatu espainiarra demokratizatu eta lau euskal lurraldeen autonomia lortzeko asmoz Euskal Herrian eratu zen multzo demokratikoaren baitan. Ezinezkoa zen haustura gauzatzea, frankismoaren aparatu zapaltzaileak osorik zirauelako eta oposizio demokratikoa aparatu hori suntsitzeko indarririk eta laguntzarik gabe zegoelako.

Onartu behar izan zen, beraz, gauzak itxuraz hobetzeko joko juridikoaren bitartez frankismotik Estatu demokratikorako "**transizio**" berezia egitea, kanpokoek hura begi onez ikus zezaten lortu ondoren, eta aparatu frankistaren gehiengoak amore emanda.

EAJk parte hartu zuen diktadurari amaiera emateko konspirazioan eta Suárezen Gobernuarekiko elkarriketetan; ez, ostera, aldaketarako mekanismo juridikoetan, Erreferenduma barne dela.

Zaharra eta burgesa izateagatik batzuek gutxiesten zuten EAJ horrek bazekien, ordea, abaguneak eta "Mendebaldeko inguruneak" irtenbide bakarra uzten zutela, Portugalen bezalaxe: homologazio politikoari ekitea, eta gero Europako Merkatu Bakar zeritzon elkartean sartzea. Hala adierazi zuen alderdiak frankismoaren osteko lehen Aberri Batzarreko txosten politikoan. Adierazpen hura profeziatzat har genezake, etorkizuna hain begi bistakoa izan ez balitz.

Zaharra eta burgesa izateagatik batzuek gutxiesten zuten EAJ horrek bazekien parte hartu beharra zegoela, akatsak akats, demokraziaren aldeko prozesu hartan, beste arrazoi batzuen artean, nazioarteko herri nagusiek prozesua bultzatu egiten zutelako, eta agian zuzendu ere bai.

Gauzak horrela, iraultza edota hausturaren aldeko edozein jarrerak porrot egin behar zuen.

Jakin ere EAJk bazekien prozesuan parte hartu ezik ETaren pistolen menpe geldituko zela, ESB edo EAE alderdiei gertatu zitzaizen moduan, eta beste indar politiko batzuek hartuko zutela bere lekua.

b) Konstituzioa:

Arauzko Konstituzioa sortu, ala benetako Konstituzio bilakatu arte garatu beharko ziren oinarritzko legeak sortu, bi bide horien arteko aukera egin beharra zegoen. EAJk aspaldi erabakia zuen Konstituzioa sortzeko bideari buruzko jarrera.

Historiari begiratuta, Euskal Herriaren arazoa 1812ko Konstituzioa nahitaez ezarri zenean hasi zen. Euskal foruzaleek ez zuten sekula onartu inongo konstituziorik. Halaber, EAJko diputatuek ere 1931koa ezetsi zuten, batez ere erlijio arazoengatik.

Polo herriko Izarra Enean, 1976an, hainbat aldiz bildu ziren, alde batetik, 1931ko talde konstituziogilean izandako EAJko diputatuak (Leizaola eta Irujo), eta bestetik EAJren barrualdeko Batzorde politikoa. Batzorde horrek, garai hartan, aldi demokratiko berriaren bezperatako "konspirazioan" ziharduen.

Lehenengo biak, Irujo batez ere, gogor mintzatu ziren Konstituzio berria onestearen alde. Beraiek Konstituzioari ezetza eman eta Errepublikako Gobernuak susmo txarra hartu zien, are gehiago eskuin foruzalearekin bat egin zutenean. *"Guk Konstituzioa onetsi bagenu -zioen Irujok, hitz gartsuez- ez dakit Historiaren ildoak aldatuko zen, baina Estatutua behintzat 1932rako izango genuen, katalanen antzera, eta ez zen izango Molarik, ez Iparraldeko Fronterik"*.

Hala ere, Batzordeko kideek ez zuten aintzat hartu zaharren aholkua eta euren planari ekin zioten: gutxienez 1936koaren adinako Autonomia lortzea, bai, baina abagune hartan Euskal Herriaren borondatea betetzeko biderik ematen ez zuen Konstituzioa onartu gabe.

Autodeterminaziorako eskubidea Konstituzioan jasotzeari ezetza alde aurretik emanda zeukaten konstituziogile gehienek: *"Herrien autodeterminazioa, Espainiak UNOren Gutunean onetsi duena, herri kolonizatuei dagokie, Nazio Batuek behin eta berriro jurisprudentzian adierazi dutenez"*, esan ziguten. Euskadiko Ezkerra eta Esquerra Republicana de Catalunya bide horretatik saiatu ziren. Alderdi horiek, diputatu banarekin, frogatu egin behar zuten Euzkadi eta Katalunia herri kolonizatuak zirela, baina hori ezinezkoa zen, kolonietako gizarte eta ekonomiak dituzten ezaugarri bereziak kontutan hartuta.

EAJk bestelako jarrera hartu zuen: Konstituzioa onartzeko baldintza gisa, emendakin bat gehitzeko eskatu zuen. Bertan foruen aurkako legeak abolitu egin behar ziren eta euskal lurraldeak 1839ko urriaren 25eko legearen aurretiko egoera juridiko-politikora ekartzeko bideak ezarri.

Hori Konstituzioa gaingitzea zen, alegia, Eskubide Historikoetan oinarritutako eremu konfederala sortzea.

Batzordeak alde aurretik zekien halako planteamendurik ez ziotela inoiz ere onartuko. Baina horrela, besterik ez bazen ere, euskaldun gehienek Espainiako Konstituzionalismoa eta Estatu bera ezesten zituzten unera eramango zuen eztabaida, beraiei emanez jokaera historiko haren zuzentasuna frogatzeko zama, eta ez EAJko diputatuei. Parlamentu hartan eta Ganbara bietan nekez

aurki zitekeen planteamenduari egokiro ekiteko gai zen diputatu edo senadorerik. Emendakina atzera bota zuten, baina nolabaiteko kontzientzia txarra edo eragin zuen. Haren orde bestea emendakin bat erantsi zuten, indargabetzailea, Eskubide Historikoak Konstituzioaren barruan kokatzen zituen. Ordezko emendakin hura garrantzizkoa izan zen gerora begira, oro har, eta Estatutuaren prestakuntzari begira, bereziki.

EAJk ez zuen Konstituzioa onetsi ez Ganbaretan ez Erreferendumean. Gaitzetsi ere ez zuen egin, arrazoi hauengatik: askatasun erregimen onargarri batean sartuko gintuelako; nazionalitate terminoa jasorik zuelako; eta Konstituzioa baino lehenagotik euskaldunek Eskubide Historikoak bazituztela onartzen zuelako. Espainiako inongo Konstituzio ez zen heldu horrenbeste onartzera 1812. urteaz geroztik. Edukinak, gehienbat, forma hutsezkoak ziren, baina horrek ez zien balio gutzia kentzen.

c) Nafarroa:

Trantsizioaldian, autonomiak berrezarri ahal izateko bide bat bultzatu zuten Katalunia eta Madrilgo zenbait taldek. Konstituzio-prozedura korapilotsutan sartu beharrean Kataluniako Estatutua dekretuz berrezartzea proposatu zuten, Francok ere dekretuz indargabetu zuenez gero. Bide horretatik, eta Tarradellas Bartzelonara ekarritik, trantsizioaldian sortutako arazo zailenetariko bat konpondu zen.

Planak huts egin zuen, besteak beste, EAJk ez zuelako ontzat eman. Izan ere, Alderdiaren iritziz, aro historiko berri hartan Nafarroak euskal lurralde autonomoaren barruan egon behar zuen. Dekretu bidezko berrezarpena onartuz gero, 1936ko Estatutua hiru lurraldeetara mugatuta onartuko zen. (Gainera, hor zegoen Francoren legegikiko begirunearen oztopoa: diktadoreak indargabetu ere ez zuen egin euskal Estatutua, nahikoa izan zuen Errepublikaren 1936ko uztailaren 18tik aurrerako egintza juridikoak aintzat ez hartzea, zeren eta bere iritziz errebelatua bera barik Errepublika baitzen).

1976an, EAJko ordezkaritza talde batek elkarrizketa izan zuen Donibane Lohitzunen hiru prokuradore karlistarekin. Hirurak ere familiburuen herenekoak ziren (Francoren Gorteetan halako kutsu demokratikoa zuen heren bakarra). Haietariko bi, Auxilio Goñi eta Zubiaur, Nafarroatik zetozen, eta hirugarrena, Manuel Escudero, Gipuzkoatik. Auxilio Goñik, bozeramaile aritu zenak, honakoa azaldu zuen: lehendabizi, eurek lau lurraldeen arteko Autonomia nahi zuten; zalantzak zituzten Autonomiaren izena eta ikurrak zirela-eta, hots, Euzkadi izenaz eta Ikurriñaz, eta prest zeuden hori eztabaidatzeko; bigarrenik, Nafarroa politikoki hutsik omen zegoen, eta lehenengo heltzen zenak bereganatuko zuten. Handik gutxira Auxilio Goñi hil egin zen eta elkarrizketak ez zuen ondoriorik ekarri. Baina, Nafarroako egoera gorabehera, autonomia Madrilen diseinatu zen.

Euskal Parlamentarien Biltzarrari zegokion diseinu hori egitea; baina UCDko diputatu nafarrak ez ziren Biltzarrera azaldu, eta geroago sozialista nafarrek alde egin zuten, elkarren arteko Autonomia lortzea xede zuen Fronte Autonomikoarekiko konpromezua hautsiz. Era horretara, berriro ere hiru lurraldeko Aurreautonomia eratu zen eta arazoa Konstituzioak xedatuko zuenaren menpe utzi.

"Nafarroako liskarrean", ordea, nabarristek bai UCD eta bai Armadako talde batzuk asaldatzea lortu zuten, honelako argudioak erabiliz: Nafarroa euskal Elkartearen sartuko balitz, lehorreko berrehun kilometroko muga bereganatuko luke Elkarte horrek, Espainiarengandik banatzeko balizko ekinaldi batean bestela nekez kontrola zezakeen muga; Nafarroako lurralde zabalek eta nekazaritza oparoak eman behar zizkioten Euzkadiri zabaltasuna eta industria eta nekazaritzaren arteko oreka, hain zuzen ere, Estatua izateko behar zituen tamainua eta egitura.

Argi dago horrelako diseinuaren asmatzaileek ez zutela Europa gogoan. Gaur egun, lehorreko mugak eta nekazaritzako ekoizpenak ez dute eraginik, edo diruz lagundu beharreko ekonomiaren alorrean sartzen dira. Lurraldearen zabaltasunari dagokionez, biztanle gutxi eta hainbat biztangune txikitari barreiatuak izatea edozein gobernurentzat zama ekonomiko astuna da, biztanle guztiei komunikazio eta zerbitzuak eman behar dizkie eta, kostu izugarriaz.

Aitortu beharra dago "Nafarroako arazoari" Konstituzioan nahiz Estatutuan eman zitzaion tratamendua ezin daitekeela antidemokratikotzat jo. Erabakia Parlamentuko gehiengo soilaren eta Nafarroako herritarren esku zegoen. Gernikako Estatutuak, bestalde, Lege Organikoen lerruna zuelarik, Nafarroari euskal Elkartera biltzeko eskubidea aintzatetsi zionean argi eta garbi "euskal nazioaren" barruan kokatu zuen lurralde hori.

Nafar gehienek egun Euskal Elkarrean sartu nahi ez izatearen zergatia jakiteko, hemengoa baino analisi sakonagoa egin beharko litzateke. Dena dela, **geure esperientzia historikoan** garbi agertarazi beharra dugu ez zirela izan nabarristen lehia eta botere zentralen erabakia halako egoera sortarazi zuten eragile bakarrak. Nafarroako EAJk, batez ere 1977ko lehenengo hauteskundeetan indar iraultzaileekin eta ezkerrekoekin bat egin zuenean, Nafarroako soziologiarekiko ezjakintasuna, burugogorkeria eta pragmatismorik eza erakutsi zituen, EAJren orduko jokaerarekin bat ez zetozen ezaugarriak. Kontutan hartu behar dugu, gainera, bai borroka armatuak, bai ETak zein mugimendu iraultzaileek bultzatutako mobilizazioek, beldurra baino ez zutela sortarazi Nafarroan. Izan ere, Auxilio Goñik zioenez, hango biztanleria funtsean kontserbadorea zen, frankismoaren lozorrotik esnatzeke zegoen eta ez zen abagune politikoaz erabat jabetzen. Beraz, gure ibilbide historikoaren analisi honetan onartu beharra dugu EAJk eta oro har euskal abertzaleek porrot egin dutela Nafarroan, gaur egungo abagune historikoan.

Arabaren gertatutakoaz gogoeta egiteko unera heldu gara. Arabako UCDko buruzagi ahaltsu batzuk lurraldea Euskal Elkartean sar ez zedin saiatu ziren. Gasteiz edo Laudioko biztanleriaren osakera soziologikoa eta baserritar gehienek kontzientzia politikorik eza kontutan izanik, ziur asko Madrilera bazeukan Araba Euskal Elkartetik kanpo uzterik, bide demokratikoak erabiliz. Hala ere, "Euskal Herriaren arazoak" okerrera egin ez zezan, botere zentralak errespetatu egin zuten Euskal Elkarrearen tajuera historikoa.

Zenbait buruzagiren entzute handiak eta jeltzale talde txiki batek Arabako Lurralde Historikoan egin zuen lan pragmatiko eta gogotsuak izugarrizko arrakasta ekarri zioten EAJri hauteskundeetan, nahiz eta PSOEk, hirietan eta etorkinen artean, eta UCDk, nekazarien artean, euren burua jaun eta jabetzat eduki.

UAren arazoari duen baino garrantzi gehiago ematen diogunean, edo Arabako gehiengo espainolisten batuketak egiten hasten garenean, atzera begiratu beharko genuke, hirurogeita hamargarreneko hamarkadari, eta gogoan izan hasiera hartan inork ez zuela ezta ametsetan ere ueste izango EAJk Arabako erakundeetan hainbesteko sarrera izango zuenik.

Esperientziaren azterketa honetan, etorkizunari begira, EAJk Araban erakutsi zuen pragmatismoa hartu behar dugu eredutzat, "Nafarroa Euzkadi da" leloaren pean "inbasore armatuen" antzera ibili ziren joera guztietako euskal abertzaleen dogmatismo eta burugogorkeriaren aldean. Horiek erraz ipini zieten nabarristei euskaldunen batasunaren aurkako manipulazioa.

d) Gernikako Estatutua:

Euskaldunen autonomia "Estatu arazotzat" hartu zen. Frankismoak, Euskal Herriaren auzia behin betiko konpondurik zeukalakoan, areagotu egin zuen, Estatuko arazo bortitzena eta ezegonkortasun iturri nagusia izateraino.

Oso zaila zen, ordea, orekagunea bilatzea, "KAS alternatiba" ordurako sortua zuten abertzale erradikalen eta edozein autonomia "politikotan" Espainiaren zatiketa ikusten zuen erradikalismo espainiarraren artean.

Historia ofizialetik kanpo gertatu ziren barneko gorabehera batzuen kontaketa beste testuinguru baterako utziko dugu.

Konstituzioa funtsean UCD eta PSOEn artean erabaki zen bezalaxe, euskal Estatutua funtsean UCD eta EAJren artean negoziatu zen.

Parlamentuan ageriko eztabaida egitea zaila eta arriskutsua zela esanez, UCDko Gobernuak Moncloara dei egin zion EAJri, Estatutuaren proiektua elkarrekin negoziatzeko.

Orduan ez zegoen batere erraz gure Estatutua, Euskal Parlamentarien Biltzarretik sortu zen Estatutua, onets zezaten lortzea. Frankisten artean, eta irizpide bakarra izateko moduko barne-batasunik ez zuen UCD alderdian bertan, baziren Estatutuaren oinarritzko edukinak onartzen ez zituzten sektoreak: denek gaitzesten zuten Nafarroa euskal Elkartean sartzeari, ia denek eskumen osoko Polizia sortzeari, askok Ekonomi Ituna, Gizarte Segurantzaren, hezkuntza sistema eta abar (Tarradellas bera ahalegindu zen Estatutuari oztupoak jartzen, baina bere onerako bakarrik egiten zuen: euskal Estatutua onartuz gero, Kataluniakoa ere onartu egingo zuten eta berari politikatik erretiratzeko ordua helduko zitzaion, ez baitzuen behar besteko prestakuntza politikorik).

EAJ zalantzan ibili zen alde biko negoziatzearen proposamena onartu aurretik. Negoziazioak huts eginez gero, errua EAJri emango zioten, gaitasunik eza leporatuz. Porrota ia ziurra zen, eta sarerik gabekoa gainera. Euskal Sozialistek eta EEk ere negoziatzearen parte har zezatela eskatu zuen EAJk. Erantzuna zorrotza izan zen: sozialistek bete egin beharko zuten bertan erabakiko zena, eta EEri zegokionez, UCDk ezin zuen onartu ETARI (pm) negoziatzearen une larrien edo negoziatzearen gogorren berri eman ziezaioketenak mahai inguruan jartzea. (Egun haietan hil ala bizi zegoen Gabriel Cisneros, UCDko sektore baten burua, bahitzeko saioan egin zioten zauriengatik).

Azkenean EAJk onartu egin zuen ausarkeria politikoaren mugan zegoen erronka hura. Kontutan hartu zituen Koroaren jarrerari buruzko informazio jakin batzuk, eta, batez ere, Suarez kolokan egotea, eginkizun horretan huts egiteak buruhauste politiko handiak ekarriko zituzkien eta.

Moncloako negoziatzearen gorabeherak, ez beti onak eta zuzenak, alde batera utzirik, ondokoa esan dezakegu handik atera zen Estatutuaz:

- 1.- **1936ko Estatutuaren adinakoa eta are hobea zen;** dena dela, ezin dira parekatu gaurko Estatutua eta 1936koa, bigarren hori lurralde-eremu txikian eta gerra garaian ezarri baitzen, haren erakundeak, adibidez Legebiltzarra, garatzerik ez zegoela. Moneta jaulkitzea, Igarobide edo pasaportea edukitzea eta horrelakoak burujabetza itxurak baino ez ziren, hil ala biziko gerraren erdian.
- 2.- **Joera bietako abertzale erradikalek arbuia zuten.** ETAK (m) eta ingurukoek, KAS Alternatibaren babesturik, erabat arbuia zuten. Baina Estatutua onartzeak eragin zuen ETAREN (p-m) desagertzea.

Sektore frankista eta golpistetako nazionalista espainiar dogmatikoez ere gaitzetsi egin zuten. Euren ikuspegitik Gernikako Estatutua euskaldunak espainiarrengandik banatzeko bide zurraren, Espainia desagiteko lehen urratsa. ETArekin batera, Estatutua izan zen kezka nagusia Tejerorentzat eta gainerako kolpe hutseginen antolatzaileentzat.

e) Suarez-en bakardadea:

Gogoratu beharra dago Suarez Presidentearen UCDek berak Fz. Ordoñez Ministrariaren ordezkari García Añoveros jarri behar izan zuela Ekonomi Ituna onetsi zedin; aurka jartze gogorra gairatu behar izan zuen, alde ezberdinetatik, euskalduna eta eskumen guztiak dituen polizia errealitate bihurtu zedin. Polizia hori, bene-benetan, Euskal Armadaren hazitzat hartzen zen eta horregatik Udaltzaingo baino askoz gehiago ez izateko nahia erakutsi zuten, arma laburrak baino ez zituen edukiko. Haren garapena, gaurdaino, inoiz euskal Erakunde batek egin behar izan duen biderik astunena eta arantzatsua izan da.

Guzti hori, hezkuntza politikak eta sistema bi horien arteko loturak ekarri zituen arazoak alde batera utzi gabe, ezta komunikabide publikoen titulartasunaren gaia ukitzean sortutakoak ere.

Gizarte arloko transferentzia sortan dagoen Gizarte Segurantza da lehentasuna duen gaia, ez UCDek bere garaian, ezta PSOEek ere gehiago absolutua izan duen aldi luzeetan konpondu ez dutena.

Itundutako Ogasunak ez bezala GSK historian aurrekasurik ez badu ere, berria izateagatik, hari gero eta lotuago dagoela eusten zuen EAJK eta hortaz, Ekonomi Itunak duen tratamendu bera behar zuela. Eztabaida gogor baten ondoren, "Ituna" berba kendu eta "Hitzarmen" sartu zen. Baina ez Moncloan diru bilketa autonomietan egitea gaitzesten zelako, itundutako zergak autonomietan egitea gaitzesten zenez. Gaitzesten zena zera zen, Ekonomi Itunak "arauak emateko gaitasuna" zuenez, bilketa eta Kutxa propioa ere, Gobernu Zentralak ezin zuen onartu kuoten finkapen gaitan gatazka larriak egoteko arriskurik gabe, baldin eta euskal Autonomiak ere hain gai gatazkatsuan legeak egin ahal bazituen.

Gai hauetan eta beste batzuetan Suárez Presidentea bakarrik geratu zen ia. Haren Alderdiko pisudun gizonak, frankismotik etorriak ala ez, ez ziren lotsatu esaten pozik zeudela beraien "eskuak" ez zituztelako zikindu Euskal Estatutuarekin.

f) Estatutuaren gaitzespena:

Estatutuaren aurkako jarrerarik onartezinena José M^a Gil Robles y Quiñones jaunarena izan zen, Moncloako negoziaketaren hurrengo egunean ABCn artikulua ezin kaltegarriagoa idatzi baitzuen. Kontutan hartu behar dugu idazlea Konstituzio Zuzenbidean Katedratikoa zela, demokrata eta Frankoren garai osoan atzerriratu, eta, bere hitzetan "autonomien aldekoa betidanik".

Euskal Herriak Estatutuarekin "bere Historiaren edozein alditan baino askoz ere gehiago" lortzen zuela eta hizkuntza, gartzela, polizia eta bestelako gaien tratamenduan erabateko ezadostasuna adierazteaz gain, "Estatutuaren sorrerarako printzipioetan" jarri zuen bere harrokeria guztia: "... **Estatutuaren 1. artikulua eta Xedapen Erantsia elkaturik, autonomi entea naziotasun gisa itxuraturik geratzen da, autonomiaren bidez, bere burua gobernatzea onartzen duena oraingoz, Euskal Herriak, komeni zaionean, bere eskubide historikoak egunera dituzan arte, hala egitea**

baderitzo. Hau da, autogobernua gaur, bihar balizko independentzia lortzeko bidea. Gauzak, zoritxarrez, horrela dira eta ez du merezi bestelako konturik ateratzea."

"Inoiz ez zen onartu behar izan -segitzen du- negoziatzen duten bi alde berdin zirela. Estatuak ez du negoziatzen berdinetik berdineren erregio batekin..." "Egungo kasuan -zintzo-zintzo esan beharra dago, mingarria da baina- Estatua bestearekiko maila ahulagoan egonik negoziatu du, terrorismoaren mehatxupean..." "Ziur nago Suárez jaunak Euskal Herriari bereiztailea izan daitekeen Estatutua ematearen erantzunkizuna bere gain hartu duela beste irtenbiderik ez zuelako. Herriak, arduratu gabe, ez dio ezta laguntza izpirik ere eskaini jazartzeko. Beste estamentu batzuek (Armadak) ez dute gura izan -eta arrazoi osoz, nire ustez- irtenbide desesperatuen bideari ekin".

Transkibaturokoa nahikoa da "espainiar aldeak", muturrekoa izan gabe, gure Estatutuari buruz zuen iritzia ulertzeko. Ohar bedi Fragaren Alianza Popular alderdiak, gaur Partido Popular denak, Estatutuaren aurkako botoa eman zuela.

Demokraziarako Transizioa izenez ezaguna den eta erregimen demokratiko berriaren **eskarmentu historikoan**, garaiko abagune politiko korapilatsuak ahalbidentzen zuen neurrian, esan beharra daukagu EAJk bere buruari ezarri zizkion helburuak lortu zituela, Nafarroarako nahi zuten konponbidea eta Justiziaren federalizazioa izan ezik.

EAJk, parlamentari talde txikia izanda, pragmatikoa zela erakutsi zuen baina adorea ere bazuela. Hasieran, ez zioten harrera onik egin Madrilen. Ez zuten kontutan hartu nahi izan, batik bat euskal sozialista eta zentristen ahaleginak zirela eta, baina azkenean politika mailako euskal ordezkari talde baliagarri bakarra suertatu zen, Euskal Herriko edozein arazotan solaskide egoki zela onartu eta Euskal Herriko erakunde zko politikaren ardatz bihurtu zen, hala Euzkadin nola hemendik kanpo.

Zatiketak arriskuan jarri zuen alderdiaren sendotasuna, baina, aurreko hauteskundeetako kotak lortu ez bazituen ere, EAJ alderdirik nagusia zen oraindio eta goi mailako politika arloko edozein konbinaketan, errespetatua eta solaskidetzat hartua zen bakarra.

Hala ere, abagune historiko nahastetsuan egin zela kontutan hartzen badugu Estatutua finkatzeko testua ontzat jo zen; ez ordea, haren garapena, ez baitu jendea hain pozik utzi.

Aldez aurretik egin behar hori zaila zela jakin arren, ez genukeen inoiz pentsatuko bizi izan ditugun beste berandutza, atzera egite, beherapen eta birnegotziaketa jasango zituenik. Alde batetik, LOAPA eta bestetik, lege organiko guztiei egiten zaizkien erasoak, oinarritzkoak nahiz oraindik arruntak izan, etengabeko tentsio iturri dira.

Estatutuaren zati handi bat garatzeke dago oraindik eta ez dirudi botere zentralak haren aplikazioa bizkortuko dutenik oraingo bederen.

EAJk pragmatikotasunez, baina adorea erakutsiz, egin beharko dio aurre egoera honi. Agian Madrili aplikatu beharko lioke haien Gobernuaren ministrari batek serbiarrei buruz esan berri duena: *"ez dago haiekin negoziatzerik, aurreko akordioak hainbeste bider hautsi dituztela jakinda"*.

g) Estatutuak indarrean dirau:

Erabat garatzeko hainbat eragozpen aurkitu arren, eta egun ere hala delarik, Gernikako Estatutua euskal politikaren gakoa eta oinarria izan da azken hamabost urteetan zehar. Estatuari eta

beroni nahitaez lotu behar zaiom Kontzertu Ekonomikoari esker Euzkadik bere buru eraiki du eta, ondorioz, ez dago oraingo egoerari atzera eragiterik.

Gernikako Estatutuak ahalbidea eman digu euskal hiritarren egungo bizitzaren ezinbesteko erreferentziak diren herri erakundeak berreskuratu edo sortzeko, euskal gizartea egituratu duten erakundeak, alegia.

Gernikako Estatutuak ahalbidea eman digu ekonomia zuzpertzeko, kultura zabaltzeko eta gizartea egituratzeko, hitz batez, Euzkadiko gizartearen etorkizunari aurre egiteko.

Gernikako Estatutuak ahalbidea eman du euskal herritarrok, euskal herritar gehienok bederen, akordioa ahalbidetzen duen baterako erreferentziagunea edukitzeko. Horri esker eztabaidan ari gaitzke, iritzi kontrajarriak eduki ditzakegu, etengabea hitz egin dezakegu ditugun diferentziak ahazturik, eta horrela euskal gizartea eratzea hiritar guztien zeregina izan daiteke.

Horregatik guztiagatik, bertan ezarrita dagoen guztia bete dadila eskatzea eta beraren baitan dituen ahalbide guztiak defendatzea ezezik, Gernikako Estatutuak aurrera egin dezan beharrezkoa da ematen dituen aukera guztiak garatzea, euskal gizartea kohesinatua, berezia, integratua eta integratzailea, eta bere etorkizuna bereganatzeko eta eraikitzeke gai dena sortzeko.

VIII.- Europar atzerriratua egotearen politika ekarpenak

Atzerriratua izatea gizaki edo erakunde batek jasan dezakeen esperientzia latzenetariko bat den arren, ez da ahaztu behar, batzuetan, eskarmentu eta harreman garrantzizkoak dakartzala.

1937an atzerriratzeak ia mundu osoko gobernu eta politika eremuetan estimatuak izatea ekarri zion euskal abertzaletasunari, eta Euzkadiri oro har.

Baina Europako atzerriratzeak, Bigarren Mundu Gerraren ondoren Europar garai hartan sortu politika mailako irudi berrien garrantziagatik, nazioartean lekua izatea markatu zuen; baita jeltzaleen helburuak munduko ikuspegi berriari egokitzea ere. Alde batera utzi zuten Agirreraren eta EAJren politikaren hutsegitea, Francoren aurka aliatuek egin zituzten ekintzetan buru belarri sinestean oinarritu zena.

Hasteko, EAJk alderdien nazioarteko taldeetan aurkitu zuen bere lekua, NEB deiturikoetan (Nazioarteko Ekipo Berriak), Lieja, 1947ko maiatza, gero "Nazioarteko Demokrazia Kristaua eta Europako Demokrazia-Kristaua", azkenean Europako Alderdi Popularra, DKren besoa Europako Parlamentuan.

Erakunde hau Europako Elkarteko lehenengo sei kideetako ia Gobernu guztietan agintean zeuden alderdiek osatu eta fundatu zuten, gerraosteko lehenengo hamarkadetan Europako politika arloan zihardutenen leihakorrenekin eta bizienekin harremanetan zegoen EAJ eta haren kideak, Europako ideia politikoaren benetako bultzatzaileekin oso harreman estuak izan zituzten.

Atzerriraturik bizi zen EAJko abertzale talde haren jardueran, haien moral aldetiko izen ona zela eta, nahiz eta politika mailan pisurik izan ez, EAJk, ez kanpoan bakarrik, Europa eraikitzeke ideia

bere egitea ekarri zuen eta politika mailako ideiak Europari begira jartzea. Horrela, Eusko Alderdi Jeltzalea etorkizunerako prestatu zen, Francoren aurkako joerak erakusten zuen agortasun eta aurrera egiteko ezinaren gainetik.

EAJko ordezkariak Europako erakunde eta antolakundeetan izan zituzten gorabehera ugariak alde batera utzita, goratu beharra daukagu EAJk, berrogeigarren hamarkadaren azken urteetan, Lehen Mundu Gerran Lausanneko euskaldunek eta 1933ko Euzkadi-Europak, zeinek Europako estatuen itunean Euzkadi independentea aldarrikatzen baitzuen, zuten pentsamoldea egokitu zutela "Agirrerren Pentsamoldea" izena hartu duenari; Euzkadi, etorkizuneko Europa Federaleko estatu federatuekiko maila bereko.

Beste era batera, *"lege, moneta, aduana, zerga-ordainketa, migrazio, gizarte laguntza, kanpo merkataritza, nazioarteko politika, armada, defentsa eta antzerako gaietan Estatuak laga beharko lituzketen ahalmenak, hain justu ere erregimen autonomoak Estatuaren Burujabetasunarentzat gordeta zituenak dira"* Agirrek dioena kontutan hartuz, ez luke zentzurik Euzkadi politikoki autonomoak Europan bi Estaturen ordezkari izatea. Izan ere, gauzak garatzen diren moduan garatuta, Estatuok Estatu "autonomo" izango lirateke etorkizuneko Europa bateratu federalaren barruan eta ez, orain arte izan diren bezala, Estatu burujabe.

Era berean, Irujok ondokoa idatzi zuen: *"Europa Federala burujabetzen bizikidetasun gisa ulertzen dugu eta haren eraketa juridikoan Federazio kontinentalaren eta Europa osatzen duten nazioei dagozkion burujabetzak behar dute egon. Argi eta garbi diogu Nazioa dela gauza guztien gainetik dagoena eta Estatuak eraketa juridiko eta politiko hutsa besterik ez dela"*.

Eta azkenik, EAJk idatziz dituen testigantza garrantzei, Agirre Lehendakariaren jarduna gehitzea komeni da. Agirrek Parisen jardun zuen 1949. urtean, Diplomazi Kidegoaren aurrean; hitzaldiaren izenburua, **"Europako Federazioaren aurrean nazionalitateek duten arazoa"**.

Honela zioen: *"Europako Erakunde Federalak ezin dio arazo honi itzuri egin. Uste dugu ez litzatekeela lekuz kanpo egongo askatasuna desio duten herriak hura lortzeko bakearen bidea eta prozesu juridikoa aurkitzen lagunduko dizkieten zenbait abiaburu aztertzea. Ondoko arau hauek prozesu horren oinarri izan litezke:*

- 1.- *Askatasunerako eskubidearen arau juridiko orokorra aldarrikatzea, hartarako borondatea erakutsi eta politika gaitasuna duen herri ororentzat.*
- 2.- *Askatasuna lortzeko nazionalitate batek bete behar dituen baldintzak ezartzea eta herriaren borondatearen benetako adierazpenaren frogak finkatzea.*
- 3.- *Ezarritako baldintzak beteko lituzketen nazionalitateen erreklamazioak onartzea.*
- 4.- *Nazionalitateek edo herriek lortu dituzten autonomiek eta burujabetza politikoek politikan jardun ahal izatea, herri horiek kide diren Estatuarekin berarekin askatasun osoz egindako itun baten emaitza badira ere.*
- 5.- *Politikan aritzeko herri baten gaitasuna egiaztatzeko proba aldia finkatzea; horri esker, haren eskubide politikoak urratsez urrats garatuko lirateke Estatu bihurtu arte, baldin eta hala gura badute.*

6.- *Europako Erakunde Federalean atal berezia sortzea, beren beregi Estaturik ez duten nazionalitateak babesteaz eta haien interesez etengabe ardura dadin. Hauek ordezkaritza iraunkorra izango lukete han.*

7.- *Bakea bermaturik egotea alde bietatik -nazionalitatea eta hau dagoen Estaturik- egoera juridiko-politiko berriak itxura hartzen duen bitartean."*

"Idea hauek -segitzen du Agirrek- gerraurreko pasioen eta interesen munduan ez zuten lekurik. Baina ezinbestekoak dira estatuz gaindiko erakundeak federatzeko ahaleginetan, European batik bat. Etorkizunari begira dagoen politikaren gaineko filosofiak, herriek nazio izateko duten askatasuna onetsi eta askatasun hori herriok eremu politiko-ekonomiko zabalagoetan parte hartzearekin uztartzea du helburu, estatuaren burujabetzari buruzko kontzeptu zaharra aldaraziz baina.

Antolaketa propioa eta bakean oinarritutako Europa hau ezin liteke irudikatu, baldin eta gizaki eta herriak haren preso badira. Eta gizonak Estaturik ulertzeko era itxia gainditu duen bezala, muga barruan gertatzen zena etxekotzat hartzen baitzuen, irten beharra dauka etxetik eta nazioartera zabaldu bete-betean askatasunik gabeko nazioak -berezko eskubidea kendu dioten gizaki taldeak osaturik-.

Oinarri honen gainean bakea sendo eraiki ahal izango da eta orduan Estaturik nazioz gaindiko formak hartu ahal izango dituzte batasuna askatasunean izateko ideia errespetatuz, hori baita federazio ororen ideia".

Egia bada ere Europa Federala etorkizuneko planteamendua dela, ezin dugu ahaztu zaila dela, baita Historian gertatu dena gogoan dugula, eremu ekonomiko eta politiko amankomuna tajutzea nola halako federazio itxurarik gabe.

Ez dago European nazionalismorik bere pentsamoldea hain zorrotz eta era demokratikoan moldatu duenik somatzen den eta haren aldeko apustua egin den etorkizun egoerara.

Izan ere, "European independentzia" izateko ideia hori Europako Elkarteko mugimendu abertzale ezberdinak bereganatzen ari dira.

Baldintza bi baino ez ditu behar: lehenengoa, hurrengo hamarkadetan Europa politika mailan batu dadila eta bestea, euskaldun gehienek irtenbide hori aukera dezatela.

Horiek guztiak kontutan hartuz eta Europak demokratikoa izaten segitzen badu, Agirreraren irtenbidea bideragarria da eta ezin hobea.

Agirre Lehendakariaren heriotzearen ostean Irujok esan zituenak gogora ekartzea merezi du:

"Europa aurrera doa ozta-ozta eta guk gurako genukeen baino geldoago, baina atzera egin gabe. Gu Agirre Lehendakaria hil zenean geunden lekuan bertan gaude. Baina haren ahalegina eta nekea ez dira alferrikoak izango. Oraindik bizirik gaudenok, haren ondorengo den Leizaola Lehendakariaren gidaritzapean, Agirreraren irakaspenei jarraitzeko ohorea daukagu, gure herriak gaur bizi duen eta bihar bizi izango duen abaguneari egokituz, betiere gogoan dugula, hark uneoro zioenez, politika egin daitekeenaren artea dela".

IX.- Totalitarismoan erortzeko arriskua

Baina European atzerriratzea egoteak, Europako Batasunaren ikuspegia ekartzeaz gain, euskal abertzaletasunari European gerra arteko aldian sortu ziren totalitarismoetan erortzeko arrisku nagusi biak jarri zizkion aurrean, aldi berean hurrengo milurtekoan jaun eta jabe izateko pentsamolde eta sistema politikoak omen zirenak, hain zuzen ere. Faxismoaz eta marxismo-leninismo edo stalinismoaz ari gara.

Alemaniarrek Vichy-ri atxekita ez zegoen frantses lurraldea indarrez hartu zutenean, EAJko kide batzuk Burgosko gartzelara hurbildu ziren, atzerriratuak bizi ziren gure agintariak sakabanatu egin zituztelako han baitzegoen Ajuriagerra bezalako goi mailako agintari zenbait. EAJko kideek alemaniar nazional-sozialismoak EAJri berari egiten zizkion proposamenak agertzeraz joan ziren, alemaniarrei beraien laguntza ematearen truke eta hura onartzea proposatuz ziurtzat ematen baitzen Ardatzean zeuden potentzien garaipena eta "Mila urteko Reich"aren ikuspegia.

Ez zen eztabaidatu beharrik egon. Gartzelako agintarien erantzuna hau izan zen: *"hori egingo bazenute, Euzkadiko kaleetan zehar narras ateratzea mereziko zenukete"*.

Ez dakigu alemaniarrek Francori lagundu ziotelako, edo gure jendearen sen demokratikoagatik, edo bi arrazoiengatik, kontua da ez orduan ez lehenago ez inoiz ez zuela EAJk faxismoarekin zerikusirik izan; ezta Dollfuss-en erako ia totalitarismo korporatibistarekin ere. Beharbada zalantzarik gabe korrante faxistei uko egin zien Europako etniazko nazionalismoetariko bat izan zen, bakarra ez esatearren.

Kontutan hartu beharrekoa da hori guztia, gure esperientzia historikoaren ondare gisa, neo-nazionalismo eta neo-faxismoek berriro ere Europako giro politikoa nahasten ari diren honetan.

Geroago, faxismoek huts egin zutenean, eta antifaxismo eta progresismoaren laguntzaz, sobietar itxurako progresismoa deiturikoaren propaganda zabala eta abila hedatu zen European, batik bat Frantzia eta Italian; propaganda horrek oihartzun handia izan zuen kultur eta arte guneeetan.

EAJren aliatzeko ezein politika hondatu zuen traizio anglo-amerikarra izan arren, Francori, Hitler eta Mussoliniri legez, menperatuko zutenek eusten ziotela ikusirik, EAJk tinko eutsi zion bere jokabideari, humanista eta gizarte zuzena lortu behar zelako usteari, baita bere mendebaldezaletasunari ere.

Berriro ere, gure Alderdiak asmatu egin zuen. Beranduago "sozialismo erreal" deitu zitzaionarekin gertatu zena argi eta garbi dago azaldu behar izateko eta are gutxiago nabarmentzeko.

Totalitarismoan erortzeko balizko arriskuaren aurrean, etorkizunerako abiapuntu izan bedi, iraultza, aurrerapena edo gizarte garaipenaren aitzakian, gizakiaren justiziarako eta askatasunerako sena aldatzen duen edozer ezin daitekeela ez ona ez iraunkorra izan.

Euskal abertzaletasunari buruz esan genuen bezala, aurreko belaunaldiko politikoen sasoiaren eragin nabarmena izan zuten bi totalitarismo mota hauetariko batekin edo bestearekin nahastu izan balitz EAJ, gaur ez genukeen haren mendeurrena ospatuko, edo ospatzekotan, lotsaren lotsaz atzera begiratu gabe ospatuko genukeen.

ETORKIZUNA

Datorrena beti etorkizuna bada, zenbait aldi historikotan aldaketak hain dira handiak eta orokorrak, ezen bidezkoa baita "etorkizunaz" arranditsuki hitz egitea. Guk bizi behar duguna horietakoa da.

Baina etorkizuna, halaber, ezezaguna ere bada. Hari aurrez antzeman nahi izatea igarle lanetan hasia da edo, apalago jokaturik, prospekzioak egiteari ekitea. Horrek badu arriskua gainera, etorkizuna -etorriko dena- igerri beharrean etorkizungai sortzea, hau da, izan litekeena baina inoiz izango ez dena. Horregatik bada, lan horri oso apal ekin behar zaio, zuhurtzia beharrezkoa dela, gure diagnostiko eta iragarpenetan oker ibil ez gaitezen.

Gure abiapuntua iragana izan behar da, esperientzia, baina berari hertsiegi heldu gabe, gauza berriei gogoia zabal dugula eta ekintzetarako prest gaudela begiratzen diegula; ez dugu erori behar etorkizuna gure nahietara moldatu nahi izate antzuan.

Badakigu politikan, ekonomian, kulturean, gizartean eta are defentsan ere jarduteko eremuak aldatzen ari direna. Haietara bildu eta, orain arte bezalakoak izaten segi dezaten, beraiei eusten saiatzeak seguruenik antzutasunera eramango gaitu eta hori, azken batean, atzerapausua litzateke.

Baina itsu-itsuan ere ezin jo dezakegu "aurrerakuntza" dirudien horretara. Aurreko belaunaldietakoen esperientzia latza izan da: hor ditugu marxismoen eta faxismoen sorkuntza eta eroraldiak; batzuek gizartea zuten helburu gorena eta besteek nazioa.

Hortik dator erreferentziagune gisa baloreak eta balore-hierarkiak finkatu beharra. Ezezagunera bidean hasia oinarri sendorik gabe, denbora aurrera joan ahala aldarazi beharko badira ere, noraezean ibiltzeko arriskuan jartzea da. Horretan hasia hara-hona galdurik ibiltzea besterik ez litzateke. Horixe da, hain zuzen, etorkizunari heltzeko erarik txarrena. Ez daukagu besterik atzera begiratu eta ikustea baino zenbatek utzi dituzten bapatean bertan behera euren bizitzaren oinarriak, ideologia edo mugimendu batek itsutu eta irentsirik, euren herrirentzako lur agindua irabaziko zutelakoan, eta nola orain behea jota dauden, hutsik, galduta eta are usteldurik ere.

Ez dezagula inoiz ezer solidorik utz, harik eta etorkizunerantz abiatzeko beste euskarri sendo bati heldu ahal izan arte.

Gure herriak herri gisa irautea eta aurrera egitea geure militantziaren ardatz bihurtu dugunok ezin diogu utzi ezerezera joaten. Ezin izan gaitezke "sprinterrak" bezalakoak, hura bazter utzirik tropela atzean uzten dutenak. Talde guztiarekin batera jardun behar dugu lanean, aurrera egingo badugu.

Beharbada herri handiek esperimentazioak egin ditzakete, halakoak izanik bizirik irautea segurtaturik dutelako. Gure herriak ez, ordea. Euskal herria sendoa da eta ekina, baina baita txikia eta

oinarrizko batasunik gabea ere, batez ere azken hamarkadetan izan diren demografi gorabeherak eraginik. Kirurgia jazarkor eta esperientzia gabeetarako prest ez dagoen gizartea da.

Gure Alderdia **geure Herriaren zerbitzurako jaio zen**. Horrexegatik esan dezakegu haren etorkizuna gurea dela. Gu denboretara moldatzea ere gure herria haietara moldatzearen menpean dago.

Gu Nazio Espainiarraren eta beraren Konstituzioaren izenean gure Konstituzioak eta euskal Erakundeak indarrez eta bortizki behin betiko ukatu eta ezabatu zituztenean jaio ginen. Euskaldunok bizkarrezurrik gabe utzi gintuzten, erakunderik gabe, gure borondatea artikulatzeko modurik gabe. Hori guztia multzo bakarrean artikulatzeko jaio ginen.

Horregatik, **gure balore nagusia Euskal Herria berrartikulatzea da**.

Aurrerantzean **Euskal Herriaren burujabetasuna** aldarrikatzen jarraituko dugu, bai gure Estatua sortzeko -hauxe da gure lehenengo helburua-, bai estatu edo herrien beste itun baten bidez, Europako beste estatuen pare, hori gure Herriaren mesederako den neurrian eta beronek hala nahi badu. Ongi ulertu behar da, alabaina, burujabetasuna ez dela inoiz lagatzen. Lagatzekotan ere, nork bere burujabetasunaren zati bat lagatzen du. Euskal Herriak bere borondatea beste herri batzuenarekin batera gauzatzea itundu ahal izango du, baina inoiz ere ez du bere borondatea lagatuko, Herri legez bizirik dirauen artean.

Hain zuzen, borondatea duen Herri legez irautea da gure borrokaren oinarria, izan ere herri bat desagertzea galera baita Gizateriarentzat, baina herri horretakoak izanik bera gabe euren burua ulertzen ez dutenentzat hiltzoria da.

Herriari begirunea diogula, **demokrazian** bizi behar dugu. Haren zerbitzari izan behar dugu, ez ordezko. Gure usteetara ekarri behar dugu, ezer inposatu gabe, erradikalismo dogmatikoez ez bezala. Ez dezagula ahaztu abertzaletasuna askatasunaren eta giza eskubideen garaitiaren ondorengoa dela.

Hala ere, argi gera bedi demokrazia ez dela men egite, menpekotasun edo babesik eza, baizik eta askatasunez parte hartzea besteekin batera.

Herri bat edo herri horren borondatea aintzatesten ez dutenean edo barrukoek zein kanpokoek ezabatzen dutenean, badaude mundu osoan aintzatezirik printzipio erabat demokratikoak hura sustatzen dutenak eta bera defendatzea onartzen dutenak.

Badatorren iraultza

Gaur egun, humanismo berriarekin batean, hamarkada bat edo bitan gure munduaren egoera goitik behera irauliko duten hiru arlo garatzen hastekotan dira; iraultza horrek gizateriaren historian beste ezein teknologi aurrerakuntzak baino jauzi azkarragoa eragingo du. Arlo horiek **informatika-zibernetika, genetika** eta **energia nuklear** berria dira; azkenengo hori prozesu nuklearren eta horren kopuruaren kontrolaren bidez sortuko da.

Gaur egungo gazteek etorkizunean bizi izango duten egoera antzemangaitza izango da eta are zailagoak izango dira kalkulatzeko aurrearreta eta berrikuntzarako neurriak: gizakion, animalien

eta landareen prozesu biologikoak hobeto ezagutuko ditu; norbanakoen eta gizartearen eritasunen aurrearreta beste era batekoa izango da, baita horiek sendatzeko bideak ere; informatika-zibernetikari esker hainbat eta hainbat datu bildu eta erabili ahal izango dira eta giza adimenaren prozesuak edo ekoizpenekoak erraztuko dira; energia nuklearraren kontrolak leku-mugikortasuna eta ondasunak gehitzea eta merkatzea eragingo du.

Hori guztiori gorabehera, badakigu zer gertatuko den. Itxaroten egonik, baliteke iraultza horren eragina ez izatea etorkizuneko gizartean lehengo beste batzuetan lurrun-ındarrak, esaterako, ekarri zuena bezain bortitza, bai baitakigu asmakuntza horren ondorioz industri iraultzak zer-nolako gatazkak ekarri zituen arlo guztietan -politika, ekonomia, gizartea, kultura-, gure gaurko egunetara arte iraun dutelako.

Teknologi aldaketa horiek ekoizpen prozesuak eta ondasun eta zerbitzuen banaketa prozesuak ukitzeaz gainera, erabateko eragina dute herritarren eta gizarte-taldeen jokaera eta bizimoduetan. Informazioaren eta komunikazioaren arloetako teknologia berriek maila guztietako aldaketak dakartzaten gizarte mota berri honetan, gizartearen baloreak eta kultur ereduak eurak ere aldatzen ari dira, ordeztukoak sortuko zaizkielako, edo eraldatzen bestela. Aldi berean, horrek kolokan jartzen du industri gizartean jardun duten alderdi eta erakunde zentzuna, eginkizuna eta jarrera. Erakunde horietarikoak dira, besteak beste, sindikatuak, enpresari-elkarteak eta, bereziki, alderdi politikoak.

Alderdi politiko baten edo Gobernu baten arduradunek, euren edo euren zerbitzupeko adituen bidez, arretaz zaindu behar dituzte fenomeno horiek eta beste batzuk, hemen esan gabe doazen arazoengatik aipatuko ez ditugunak. Bestela, eguneroko bizimoduak kezka horiek estaliko ditu eta horrela aldaketek itsumustuan harrapatuko gaituzte, ia beti bezala, eta kostuak are handiagoak izango dira.

Mundua den herritxoa

Kontzeptu hau Lurreko herrien arteko harreman eta elkarmenpekotasuneko egoerari buruzko topikoa da. Gainera, harreman eta menpekotasun horiek ez dira txikitu, ez horixe; aitzitik, areagotu egingo dira, nahiz eta Estatu-nazio handiek atzerabideko maniobra ugari egin.

Ekonomia eta finantzen arloan termino hori sarritan badarabilte ere, ez da horretara mugatzen. Ekologian, kulturen eta politikan ere badu zuzeneko eragina.

Eguneko moneta-liskarrek zenbait herriren oreka ekonomikoa hautsi ezezik Burujabetasunaren euskarririk sendoenetakoak eta Estatu baten aberastasunaren eta ahalaren adierazgarriak diren diru jaulkipena eta haren balioa zalantzan jartzen ditu.

Burujabetasuna murriztu egin da gizarte eta lan araugintzaren arloan, oso arlo berezia berau. Ez enpresariak, ez agintari politikoek ezin finka ditzakete jada prezioak euretara, ezta alokairu-ordainsariak ere, zeren eta, mundu osoko elkarlehiak jartzen dituen prezioei jaramonik egin gabe finkatzen baditu, fabrika itxi besterik ez baitugu egingo, alokairu onak eta lan baldintzak egokiak izan arren.

Gaur egun Estatuak ez dira euren buruen jabe ezta euren aire-eremuan ere, euri azidoa edo kutsadura nuklearra dakarten hodeiak zeruetan batetik bestera dabiltzanean, edo itsasoak kutsatzen direnean, edo kontrolei behin eta berriz itzuri egiten dion arrantza gehiegizkoa egiten denean.

Gero eta gutxiago erabiltzen da "ius excludendi alios", Estatu baten barne arazoetan ez sartzea alegia; hor dugu, esaterako, UNOren indarrak edo berorrek baimendutakoak egunean baino egunean ugariagoak izatea han eta hemen.

Hots, politikaren arloa, ekonomiarena eta defentsarena ez dira hertsia, orain arte bezala; hemendik aurrera geroago eta iragazkorragoak izango dira gainera.

Fenomeno horren zuzeneko ondorioetariko bat ekonomi eremuak, ekonomi eta aduana batasuna eta are batasun politikoak geroz kontinentalizatuagoak izatea da. Horren adibidea dugu Europar Batasuna.

Europar Batasuna

Ez dagokigu guri hemen Europako herrien batasunerako bidearen historiari hitz egitea. Aski izan bedi esatea Frantzia eta Prusiaren arteko 1870eko gerra lazarriak eta 1914-18ko eta 1939-45eko mundu gerra deritzen biek berriro holakorik egon ez zedin formula sortu behar zirelako iritzia sortu eta zabaldu zutela. Horrez gainera, deskolonizazioa ere ekarri zuten, sortu berri ziren bi potentzia ahaltsuek bultzaturik; ordura arte mundu potentziak izan ziren Erresuma Batua, Frantzia eta Alemania bigarren mailan geratu ziren haien aldean.

Merkatuak galdurik, ekoizpen masiboko teknikak garaturik eta nazio barruko merkatuak txikiak izanik, herri horiek erabateko aldaketak egin behar izan zituzten euren baitan, Amerikaren aurrean lehenengo eta Japoniaren aurrean gero ekonomikoki bizirik irauteko.

Europa eraikitzeke hainbat gorabehera igaro ondoren, gure kideak beti beraietan partaide zirela, azkenik ere Europako sei estatuk Messinako Konferentzian (1951, maiatzaren 2tik ekainaren 2ra) batasun ekonomiko sortzeko akordioa egin zuten, Merkatu Batua, batasun politikorako bidearen azpiegitura izan zedin.

Horretarako oinarri juridikoa Erromako Itunbanean jarri zuten, 1957ko martxoaren 25ean. Hemendik aurrera jakintzat emango ditugu Elkarrekin izan dituen kide-gehiketak, Akta Bakarra eta Maastrichteko Itunbena.

EAJ orduan ere Batasunaren aldekoa izan zen eta orain halaxe dirau, hari bertoko zein atzerriko politikari foro guztietan lagunduz. Gure txosten politiko guztietan horretaz eta "independentzia Europan" deitu izan diogunaz hitz egin dugu, 1976 urtean lehenengoa egin genuenaz geroztik.

Gauza jakina da alderdi eta gobernu batzuek Europa eredu federalaren arabera egitura dadila aldarrikatzen dutela eta beste batzuek, berriz, Europa merkataritza askeko eremu gisa ulertzen dutela, Erresuma Batuak batez ere, eta ez dutela euren burujabetasun politikoa eskualdatu nahi.

Euskal talde abertzaleetan ere, batzuek Europa britainarriena edo Espainiako eskuinzaleena bezalako ikuspegiaren arabera ulertzen dute, naziokeriaz alegia, EAJren iritzi federalistatik urrun jarrita. Eta hori soil-soilik uste dutelako orain arteko jarrerari eutsi behar zaiola eta European burujabea izango den euskal Estatua aldarrikatu behar dela.

EAJk oraindik ere uste du moneta bakarra ezartzeko, aduanak eta barne mugak kentzeko, pertsonak, merkataritza-gaiak eta kapitalak aske zirkulatzeko eta kide gehiago atxikitzeke -laster 20tik gora izango dira-, Elkaratearen oraingo egiturak errotik aldatu beharko direla eta estatuaz gaidiko erakundeak sortu beharko direla, haiekiko lokabeak eta beraien gainekoak, sorospidetasunaren printzipioari jaramon eginik.

Beraz, eta Europako foro eta erakundeetan jarraitzeko asmoarekin, EAJ adituak eta politikariak prestatuz bere burua egokitzen ari da, hala Euskal Herria ere prest egon dadin eta European izatea ahulgarria barik indargarria izan dadin eta horrek bazterrean utzi barik moderniza dezan, beti ere gogoan edukita horrek prozesu politiko eta ekonomikoak ezezik berekin dakartzala Euskal Herriaren etorkizunean eragin itzela, onerako edo txarrerako, eduki lezaketen gizarte eta kultur prozesuak.

Euzkadiren eraikintzarako lehenespenak

Euskal abertzaletasunaren xede nagusiak, dagoeneko azaldu ditugunak, adibidez, burujabetasuna, lurralde batasuna, European independentzia izatea, ihesbide huts bihur daitezke, baldin eta egunean eguneko arazoei erro-errotik oratzen ez badiegu; arazo horiek konpontzen ez baditugu, gure xedeak ezin izango dira bideratu edo, bestela esanda, ez dute erabateko funtsik izango.

Oinarrizko lehenespenetariko bat ondokoa da: Euskal Herriko gizarte eta beraren aniztasuna egituratzea.

- 1.- Lurralde eta kultur egituraketa** lortu behar da Atturritik Ebro ibaialdeko lautadetaraino, eta horixe izango da etorkizuneko egitekoa, European sortu berri diren barne mugarik gabeko errealitateetan oinarriturik errazago lortuko duguna. Baina egituraketa hori Euzkadiko Autonomi Elkarteko hiru lurraldeen artean eta Nafarroa eta Iparraldearekin ere lortu behar da.

Gauzak indarrez ezartzea, eta politikaren eta kulturaren arloan homogenotasunerako prozesuak lortzeko presio zentzugabea egitea ez dira gizalegeko neurriak, ezta zuhurrak ere.

Hizkuntza, kultura eta bizimoduak dagokienez aniztasun handiko herria gara, herri gehienak bezala, eta, zer esanik ez, eratuta dauden Estatuak bezala. Ez dugu guk orain homogenotasunerako formularik ekarriko, zeren eta formula horiek gure herriari ezartzen saiatu direnek arrakasta txikia lortu baitute.

Horrenbestez, antzinako aro eta koadrilek Araban baino ez dute iraun lurraldearen kudeaketan esku duten erakunde gisa; aldiz, merinaldek hauteskundetan baizik ez dira ageri. Nafarroan, berriz, desagertu egin dira guztiz. Gure lurralde historikoen arteko ezberdintasun logikoek, gure politikak mendeetan izan duen ibilbidearen fruitu direnek, ez dute inola ere sasoi

batekoen antzik, adibidez, gure Alderdia sortu zen sasoikoena. Gure barne sistema federala, Parlamentuan konfederala dena, borondatezko elkarbizitzarekiko begirunea erakusten duen formula da. Komunikazioen zalutasunak eta industriaren eta merkataritzaren arloan ia egunero elkartrukeak izateak desagertaraziko dituzte ezberdintasunak eta aurriritziak.

Hizkuntzaren arloari dagokionez, euskeraren arloan eskolek izan duten politikari esker, hemendik hamar urtera gure gazterik gehienek jakingo dute euskeraz.

Gure iritziz, lehentasuna Euskal Herrikoa izatearen kontzientzia zabaltzeari eta horretan sakontzeari eman behar zaio, gure jatorria dena delakoa izanda, hurbilekoa edo urrunekoa. Gure gazteentzat, oro har, euskalduna izateak badu erakargarririk, baina itsu-itsuan edo derrigorrez euskalduna edo beste edozer gauza izatea, gaur egun, arbuia garri da ia guztientzat.

Gure arteko hiritar batzuk espainiar nazionalista dira. Ez dute Euskal Aberria onartzen, ez dute euskera zabaltzerik nahi, eta gainera, lasaitu ederra hartuko lukete gure autonomia politikoa desagertuko balitz. Beraien eskubidea da. Baina gutxiengo baten zalapartak ez digu atzera eragin behar, batez ere euskaldun gehienek euren laguntza ematen digutela.

Gure hizkuntzak historian zehar jaso dituen erasoei erreparatzen badiegu, bidezkoa iruditzen zaigu geure hizkuntza zabaltzeko eta sendotzeko beraren alde bereizketa positiboa erabiltzea.

Salatu nahi dugu Administrazioak eta Estatuko goi auzitegiek hizkuntz arloan erakutsi duten sentsibilitate eta objektibotasunik eza. Ez lukete ahaztu behar Justiziaren objektibotasuna behin eta berriro urratzen denean, Justiziak esandakoari men egitea sarritan arriskutan jartzen dela.

Hala ere, ez da ahaztu behar euskeraren aurrera egite horren oztoporik handiena euskaldunek, abertzale askok eta gure alderdikide ugariak, batzuk oso garrantzitsuak, euskerarekiko erakusten duten zabarkeria dela; eta beraz, euskeraren gaitz guztien ardura eta errua beste batzuei egoztea barka ezineko hipokresia litzateke.

Euskeraren normalizazioa garatu eta euskera bera bizitzaren eta gizartearen eremu guztietara zabaldu dela erabat sinisturik gaudela, ezinbestekoa da EAJk horretan buruzagitza eskura dezan eta gizartearen eredia eta irudia izan dadin.

Alderdiak konpromezua bereganatu behar du bere egiturako kideak euskalduntzeko -burukideak, kargu publikodunak, etab.-, horiek euskaraz bizi daitezen eguneroko lanean. Horretarako plan berezia eratuko da, lurralde eta hizkuntz arrazoiak kontutan hartuko dituen plana eta, behar izanez gero, adinagatik salbuestea ezarriko duena. Plan hau azken bost urteotan Euskal Administrazioak egin duenaren antzera betearazi beharko da; batzordea sortuko da.

2.- Ekonomiaren arloko autonomia; ez da beren beregiko babes eremu antzeko bat duen autarkia, baizik eta gure herriak bere lanetik bizi behar duela ikustea, ez dirulaguntzen edo inoren mesedearen menpe egon.

Bi krisialdi latz bizi izan ditugu; ia bat-batean Aduanak ezabatu egin dira eta topo egin dugu aurrez aurre lehiakortasunean bete-betean oinarritzen den ekonomia batekin, bai Europan, bai mundu osoan; gure siderurgi industria, untzigintza eta ekipo ondasun handien industria deuseztatu egin dira; sozialisten azken gobernuen moneta politika, inflazioaren arazo

endemikoak, diruaren prezio altua edo pezetaren parekotasun artifiziala, horrek guztiak ia-ia gure enpresa txiki eta ertaina erabateko porrotera eramane du. Autogobernua une egokian lortu izanak eta Ituna berreskuratu izanak aurrekontuen arloan benetako autonomia lortzea ahalbideratu zuten eta bideak eman zizkiguten erori behar zen guztia batera erori ez zedin, eta etorria zuen guztiari eutsi ahal izateko.

Egun, gure industriaren arazo eta alde txar guztiak gorabehera, enpresa kultura badugu, baita enpresa-sarea ere, eta horrez gain, gure lurraldearen tamainua eta biztanle kopurua kontutan hartuta, munduko herri gutxi bezalako teknikari multzoak ditugu, tornularietatik elektronikarietara doazenak. Arlo guztietan azpiegitura politika ona izateak egoera egokia eragin du gure industria garatu ahal izateko.

Etorkizunerako itxaropenik egon badago gure herriarentzat, herri honek ekoizpenean oinarritzen den ekonomiaren alde apostu gogorra egin duelako bete-betean.

Dena dela, ekonomiaren eremuan erne jarraitu behar dugu, batez ere ondoko arloetan: lanbideetarako gaikuntza teknikoan, atomizazio norberekoian, zeinek hornitzaileen hornitzaileak izatera eramango baikaitu, edo enpresajabe eta sindikatuen neurritz kanpoko jokabideetan, besteak beste. Hori horrela egingo ez bagenu, orain bizi dugun sendoketarako eta berrabiadurarako bultzada hau ezerezean geratuko litzateke.

Hurrengo urteetarako erronka **lehiakortasuna** izango da. Lehiakortasun maila egokia lortu nahi badugu, epe luzearako eta etenik gabeko industri politika behar da. Baina **enpresak eurak** dira elkarlehian ari direnak, merkatu zatiak erdiesteko ahaleginak egiten dituztenak, nahiz eta politikaren arduradunak izan enpresei merkatura irteteko baldintzarik onenak eskaini behar dizkietenak, adibidez, azpiegiturak, telekomunikazioak, heziketarako zentro eguneratuak, gizarte giro egokia, inbertsiorako laguntzak etab., eta beti ere ekonomiaren egitura modernizatzeko xedez.

Zerbitzuek gorakada handia izan dute gure herrian. Baina argi utzi behar da gure ekonomian, industrian oinarri sendoa duen ekonomia honetan, zerbitzuek ezin direla isolaturik eta epe zehatz gabe hazi, baldin eta industriak sendo-sendo aurrera egiten ez badu.

Halaber, zerbitzuen beste sektore batzuk daude, batez ere aurrekontu publikoen pean daudenak. Horiek ez dihardute elkarlehian inorekin eta elkartasunik eza sortarazten ari dira; eta beraz, horrek ez dakar inolako mesederik guztion arteko arrisku politika bat garatu ahal izateko. Sektore horiek, gainera, sindikatu asezinaren ekintzaren xede dira, eta ondorioz, gastu ikaragarriko egoera arriskutsu batera garamatzate.

Espainiako gobernuak ez du oraindik zehaztu makroekonomiaren eremua eta urte erabakipir asko galdu ditu alferrik, industri politikarik izan ez duelako; gainera, diru kopuru itzelak xahutu ditu entzute eta distira handiko ospakizunetan. Hori kontutan hartuta, ondoko datua nabarmendu behar da etorkizuneko politikan garrantzi handia izango duelako: desgobernu hori gorabehera, gaur egun Europako lurraldeen artean industri gorakada handiena izaten ari den lurraldeetako bat garela, Espainiako merkatuarekiko gero eta lotura txikiagoa dugula (txikiagoa nahitaez), eta, ondorioz, ekonomiaren arloan dugun inpedentzi gradua gero eta handiagoa dela.

3.- Maila guztietako prestakuntza. Gure herriak ez du jadanik natur baliabide askorik. Meatzeak agortu egin ziren. Energi baliabiderik ere ez du.

Bestalde, ekonomi ardatz nagusietatik urrun dago, mapan duen kokaerak eta itsasorako bidea izateak abantailaren bat ematen badiote ere.

Beraz, nahitaez gure baliabide nagusiak gure jendearen sormena eta ekoizmena dira.

Inguruko herrien aldean, ehun urte baino gehiagoko industri kultura dugula onartzen badugu ere, kultura eta teknologiaren arloen garapenean oraindik ere ments handia dugu.

Penintsula osoan guri soilik eta orain hogeita hamar urtera arte ukatu zaigu Unibertsitate publiko bat izatea; bigarren hezkuntza ere oraintsu bilakatu da orokor. Hau da, gure biztanleen gehiengo zabal batek, gazteenak salbu, oinarrizko hezkuntza baino ez du izan, eta kasurik gehienetan, hori oso oinarrizkoa izan da. Salbuespena lanbide heziketa da, hau azken hamarkadetan industri zentroetako enpresek sortu eta sustatu dutelako.

Baina gaur egungo egoera beste era batekoa da. Nahitaezko eskolaren ondoren ikasketak egiten ari diren 15-19 urte bitarteko gazteen proportzioa erabat aldatu da: 1970ean %41a eta 1991n, aldiz, %82a. 20-24 urte bitarteko gazte ikasleen proportzioa %11tik %40ra igo da garai berean. Orain dela hamar urte baino 40.000 unibertsitari gehiago ditugu, bigarren mailako ikasketak egiten 39.000 ikasle gehiago eta ia 20.000 gehiago lanbide heziketan. Ikasleen kopurua, ordea, ez da hazi, aurrekolan eta lehen hezkuntzan 110.000 ikasle gutxiago baitaude; eta kopuru horrek behera egiten jarraituko du jaiotza indizeen beherakada izaugarriarengatik.

Demografiaren beherakada ikaragarriak hezkuntzan eta osasunean ezezik eragin handia du, halaber, Euzkadiren garapen-prozesuan ere. Ordua iritsi neurri positiboak har ditzagun, jaiotza- tasaren beherako joera erabat aldatzeko.

Irakaskuntzaren kalitatea ez dago beti garai hauetako eskakizunei aurre egiteko moduan. Irakasleen prestakuntza eta beraiek gizartean duten aintzatespoena ez daude, nolabait esateko, Europakoen parean. Irakaskuntzaren kudeaketa, erantzukizuna hartzeko eskakizunak, lan ordutegiak eta borondatez jarduten eta prestatzen jarraitzen dutenentzako pizgarriak ez dira behar bezalakoak oraindik.

Horrez gain, abokatu, mediku eta arkitekto gehiegi daude, eta kualifikazio jakin batzuetako profesionarien beharra dago; eskola porrotaren indizeak ere kezkatzeko modukoak dira.

Hau da, ikasleek behar duten prestakuntzaren eta jasotzen dutenaren artean alde oso handia dago. Hezkuntz sistema, aldatzen ari diren egoeretara moldatzeko ahaleginetan ari bada ere, zaharkiturik dago teknologia eta joera berrien aldean, eta horren ondorioz arriskua dago lan eskaintzaren eta eskariaren artean desoreka sor dadin.

Bizirik dauden hizkuntzen irakaskuntza geroago eta gehiago zabaltzen ari da, emaitzak beti behar bezalakoak ez badira ere. Kontserbategiak eta Arte Ederretako eskolak ere guztiz hedatu dira, beti maila oso ona eduki ez arren.

Aurrerapausu handia egin da, baina arlo honi dagokionez gure herriaren etorkizunerako berebiziko garrantzia du ondokoa kontutan hartzeak: gure gazteen eta gizarte osoaren etengabeko prestakuntzari arreta berezia eman behar diogula.

Hizkuntzen eta, batez ere, ingelesaren irakaskuntzak gure gazteen artean izan duen hazkundera izugarria izan da. Baina arlo horretan ez dugu inoiz nahiko ekingo, zeren eta hirugarren

hizkuntza jakiteko beharrezana Europako eremu guztietan ezinbestekoa baita; eremu horietan, gainera, gaztelera euskera bezain balio gutxikoa da.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiago duelako, horraitino, gure Herriko gazteei irakaskuntza-maila guztietan prestakuntza etiko sendoa eman dakiela lortu behar dugu, gizartean gizakian gizakiaren zerbitzuan egon dadin.

4.- Bazterkeria eta duintasuna. Naturak edo, beste era batera esateko, **naturaren akatsek**, gizarte guztietan baztertu portzentaia eragiten dute, ezinbestean. Bazterkeria hori hainbat karirengatik sortu da: eromena, jaiotzatiko akatsak, gurasoengandik seme-alabengana igarotzen diren akatsak, istripuak, umezurtz geratzea, famili barruko gorabehera larriak etab.

Baina akats horiek dituzten hiritarren kopuruari beste kopuru eskerga bat erantsi behar zaio, hau da, droga edo alkoholzaletasunaren biktimena, eta horien ondorioak ere bai: HIESa, lapurreta, ganora gabeko bizimoduak etab. Horrenbestez, **gizartearen akatsei** buruz hitz egin dezakegu, eta zinez pentsatu beharko dugu zer dagoen bitxi gure gizartean baztertuen kopurua hainbestekoa izateko.

Horrez gain, badago beste bazterkeri eta gizarte bereizkeri mota bat, gure Euskal Herriko gizartearentzat arazo larria dena: langabezia eta, batez ere, gazteen langabezia.

Langabezia egiturako bilakatu da. Epe ertainera ez dago enplegua hobetzeko itxaropenik. Aurrerapen teknologikoren bat agertzen den bakoitzean, hainbat lanpostu hondatzen dira. Ekoizpenerako bidean sartu behar dugu, gaur egun oraindik horren zantzurik ere ikusten ez badugu ere, enplegu osoko mundu bat sortu ahal izateko. Beraz, langabezi kopuru handien zamarekin bizi beharko dugu nahitaez.

Langabezia dela-eta diru-iturririk gabe dagoen familia baten tragedia neurtu ezinekkoa da. Eta are zailagoa da neurtzea gizartean eta etorkizunari begira zein ondorio ekar dezakeen gurea bezalako langabezia kuota handiak.

Ez gure gizartea, ez gure erakunde publikoak, ez sindikatuak, ez alderdiak, ez gara ahalegintzen behar beste langabezia gutxitzeko. Gizarte gaitz horren larritasuna bera ere ez dugu behar bezala neurtzen.

Abaguneko laguntzez edo gizarte alokairuez aparte, larrialdiei dagozkien konponbideak bilatu beharko ditugu larrialdi honetarako, zeren egoera hori bidegabea izateaz gain gizarte kostu handiak sortzen ari baita. Lehiakortasunaren beste alderdia elkertasuna da. Egitura-arazoei ere konponbide iraunkorrak aurkitzen saiatu behar dugu.

Bestela, gure gizarteak bi maila izango ditu, eta horiek ez dira izango kapitala eta lana, baizik eta langilea eta langabea.

Beste arazo bat dugu, gainera: gure gizartea zahartzen ari da.

Bizitzaren iraupena luzatzeak berekin dakar askotan pertsonentzako arreta-neurriak prestatzea. Eta, gainera, pertsona horiek gaisorik badaude edo ments fisikoak badituzte edo famili giro egokirik eta baliabide ekonomikorik ez badute, orduan haien egoera guztiz jasanezina izan daiteke.

EAJren eta abertzale guztien iritziz, ezin da Euzkadi askeari buruz hitz egin, baldin eta euskaldunon kopuru handi bat egoera txarrean bizi bada.

Eta azkenik, ondokoa nabarmendu nahi dugu: gizarte bat gizalegekoa eta duina da, baldin eta bertako kideetarik behartsuenei jaramon egin eta laguntzen badie. Horrexek, hain zuzen ere, bereizten du totalitarismoetatik, batez ere faxismoetatik, hauek, onenean, eroak, gaigabeziadunak edo zaharrak ezkutatu eta gordetzen dituzte eta, edo bestela, desagertarazi, horiek oztopo huts izango balira bezala.

5.- Bakea. Gizarte orotan dago indarkeriarik, neurriren batean. Eta hemendik aurrera indarkeria era berri asko ikusiko ditugu mendebaldeko gizarteetan.

Euskal Herriko gizarteaz azken urteotan Euzkadi independente eta sozialista lortzeko indarra darabiltene bortizkeria pairatzen ari da.

Leninen Nazioaren Askatasunerako Frontearen eskema eurenganatu dute, eta bai eskema horrek dituen iraultza konotazioak ere, hirugarren munduko herrietarako aproposak direnak. Gainera, Euskal Herriko gutxiengo batean oinarritu dira horretarako; eskema hori zutabetzat harturik, frankismoaren garaitik hona euren planteamendu ideologikoekin eta indarrezko ekintzekin jarraitu dute eta ez dituzte onartu Euskal Herriko gehiengoak zelan edo halan onartu dituen egitura juridiko-politikoak.

Abertzaletasunari buruz duen ikuspegia kontutan hartuta, eta errealitate eta praktika iraultzailea alde batera uzten baditugu, ETA txosten honen hasieran aipatu genuen abertzaletasun linearen barruan dago, alegia, Euskal Herriaren askatasunerako eskubidea aldarrikaturik, askatasun hori lortzeko indarkeria erabiltzea zilegi dela uste dutenen linearen barruan. Ez diote herriari uzten bere bidea hautatzen, nahiz eta zapalduta daudela hauteman; ziur daude azkenean garaipena lortuko dutela; ez dute kontutan hartzen porrota izatearen aukera, ezta herriari gizarteaz, ekonomian edo politikan egiten dioten kaltea ere.

ETAk jendaurrean azaltzen dituen idaztietan, haren esakuneetan eta praxian ez da batere erraza euskal abertzaletasunaren lehenespenezko ezaugarriak aurkitzea.

Mingarria da ikustea nola espainiar nazionalismoak ETA erabiltzen duen euskal abertzaletasunaren aurka. Eta halaber, mingarria zaigu ikustea bonba itsua eta tiroa kokotean euskal ezaugarritzat hartzeak, eta abertzaletasuna horrekin soilik identifikatzeak, gure gizarteko eta Espainiako gizarteko eremu gero eta zabalagoetan, Euskal Herriaren aurkako sentimendua, eta, ondorioz, euskeraren aurkakoa sortarazten duela.

Baina euskaldunak dira eta gure artean daude, haien ikuspuntuekin eta bat ez bagaude eta, batez ere, haien ekintza odoltsuak gaitzesten baditugu ere.

Nolanahi ere, oraingo egoera danoi dagokigu eta denok konprometitzen gaitu. Bai alderdikide garen aldetik, bai Euskal Herriko hiritar garen aldetik. Horregatik bada, ez da ausartegi jokatzea pakerako bideen bila aritzea euskal hiritar guztien eginbidea dela esatea.

EAJk bere herriarenganako betebeharrak du, alegia: konponbide bat bilatzea, ahalik eta gizalegekoena, gatazka hori gainditzeko eta bakea lortzeko bidezkotzat jotzen dituen bide guztiak bilatuz.

6.- Politikagintza, sortzen ari den gizarte eredu berrian. 1995eko uztailaren 31n ehun urte bete ditu lanean Sabino Arana Goirik sortu zuen Alderdiak. Mende bat igaro dugu Euskal Aberrian sinisten dutelako egunean-egunean haren orain eta etorkizuna eraikitzeke lanak egiteko konpromezua hartu nahi duten guztien ahaleginak bateratzeko.

Baina, iragana ahaztu gabe, oraingo hau une egokia dugu berriro ere EAJk aldi-aldi behar den lekuan egoteko egiten dituen ahaleginak berrizteko. Etorkizunak ekarriko dituen erronkei antz eman behar diegu eta azkar jokatu behar dugu, gure Herriko gizon eta emakumeen gogoia eta lana batuko badira, helburua askatasunerantz eta berdintasunerantz joatea dela.

Gure erakundea eta gure jardun politikoa gizarte berri honetan euskal herritarren beharrian eta eskari zehatzetara moldatu behar ditugu. Gizarte berria industriaondoko gizartea da, zeini "informazioaren gizartea edo komunikazioaren gizartea" esaten baitiote, izen oso adierazgarria jarririk.

Politikagintzan eragin handia izango dute aspaldion gizarte eta politika harremanen eremuan izan diren eta diren aldaketek. Ildo honetan, alderdi politikoek izango duten zeregin berria gureganatu behar dugu; hauek burutu izan ohi dituzten eginkizunetariko batzuk aldi berrietara moldatu beharko ditugu, seguruenik ere. Ez dago inertziak eraman gaitzan uztea, edo dagoenarekin konformatzea.

Logikoa denez, oro har egiten dihardugun hausnarketa hau gure Herriaren eguneroko bizitzarekin erkatu behar dugu.

Euskal gizartea geroago eta hirikoagoa da. Geure burua gobernatzeko erakundeak berreskuratu ditugunez geroztik aurrera egin du, bere eragile politiko eta ekonomikoa, azpiegiturak eta zerbitzuak bereganatu ditu, denak ere inguruko herrietakoen maila beretsukoak. Ideiologiaren porrotak eta pragmatismoak jota, bat egin dute gizarte honetan indartzen ari den norbanakokeriak eta mugak gaindituz zabaltzen ari den herritar eta gizarte taldeen arteko elkartasun-ahalegin onuragarriak. Kulturaz eta elkarteaz aberatsak izanik ere, gurean prestakuntza goren mailakoa izan arren, eragozpen larriak jarri ditu hezkuntz sistemak, ez baitago behar bezala orientaturik eta ez baita behar bezain eraginkorra. Gizarte-ekonomiaren arloan krisiak eta kendu ezineko langabeziak eragin duten noraezoko giroa nagusi dela, gure ekoizpen sistemak badu erronka bat bere aurrean, lehiakortasunari eustea merkatu bakarrean eta Europako eraikintzan. Gure gizartea biharamunean zer izan go den kezkatu bizi da, epe laburrekoa besterik ez du gogoan, segurtasuna du helburu eta arriskua baztertzen du; besteak eskuordetzen ditu, erabaki garrantzitsuak har ditzaten. Gizarte honetan politika nahitaezkoa delako onartzen da eta ez du sinesgarritasun handirik jendearengan, tolerantziarik eza eta gertatu diren eskandaloak ikusirik.

Beraz, gure ustez politikan dihardugunean bi ikuspegi horiek gogoan izan behar ditugu, bata orokorra eta bestea hurbilekoa; ondokoak izango diran printzipio nagusiak, batzuk Alderdiaren sendotasunaren oinarriak izan direnak:

P Herritarrengatik hurbil lan egitea, gure alderdi-erakundetik bertatik eta gauden erakundeetatik. Ez da nahikoa politika "akaskabeak" diseinatu eta betearaztea, baldin eta gure Herriko gizon eta emakumeekin, taldeekin eta gizarte erakundeekin erkatzen ez baditugu, eta haiek bizi ez badituzte.

P Politikan eta erakundeetan jokaera eredugarri eta zintzoa izatea.

P Gure gizarteari eskatzen dizkiogun baloreak gureganatzea:

} Politika-lanetan sormenez eta berrizaletasunez jardutea, politikak diseinatzean konformista izateari itzuri eginez, bai eta etengabeko ahaleginak aldatzen ari diren inguruabarrei egokitzeko.

} Alderdi politiko gisa kalitarekin aritzea, lana ongi burutzea; balore hau Alderdi osoak bereganatu behar du.

P Eratzen ari den zibilazazio berriaren errealitate berrietarako prest egotea: aldatzeko eta gizartearen beste protagonista batzuekin harremanak izateko gertu, kanpotik heltzen dena hartzeko eragozpenik gabe; hau da, erakundea etengabe berritzea, barne demokrazia eta eraginkortasun politikoa bateratzeko eta Alderdiak errealitate materialekin ezezik gizartearen eta politikaren baloreekin lan egin dezan.

Bide horri ekinez gero soilik izango gara aurrerantzean ere gure Herriko politika buruzagiak, jendearen gogoia elkartzeko dugun gaitasunari esker, are gure proiektu politiko osoarekin bat ez datozenena ere.

GURE PENTSAERA, ASMOAK ETA ITXAROPENAK

Gure bizitzaren ehun urteetan zehar era guztietako hainbat eta hainbat gizon eta emakume igaro dira Alderditik.

Aldi luze horretan alderdikide askok eskaini dituzte euren ahalegin gogotsuenak, Alderdiaren itxaropenak Euzkadiren errealitatearen zati bat osatuz gauzatu ahal izan zitezten.

EAJko gizon eta emakumeek, urteotan, bakealdietan bakean bizi eta gerra edo zapalkuntza sasoiatan ere nola edo hala aurrera egiten jakin dute.

Azaldu berri dugunez, ugariago izan dira garai gogorrek garai baketsu eta lasaiak baino, eta horrek izan du eraginik, noski, gure egituraketan eta gure ideologiaren eraikuntzan.

Izan ere, alderdikideek eragozpen larriak izan dituzte euren sormena, ekimen handia eta egitasmoak sortzeko gaitasuna erabiltzeko. Arrazoi beragatik jeltzaleen mezua, sarriegi, ahoz edo ezkutuko argitalpenen bidez baino ezin izan da hedatu, horrek dakartzan muga guztiekin. Horrela, bada, nabarmen murrizturik eduki dugu elkarrizketa, bere izaera sendotzeko ahaleginetan dabilen herriak politika eta kultura egokiak sortzeko ezinbestekoa duen jarduera. Eztabaida aberasgarriaren orde, askotan mezu lehorra baino ez dugu izan.

Horren ondorioz, Alderdiaren edukin ideologikoa ulertzerakoan zenbait hutsune azaldu dira batzuetan, baita ulerkera kontrajarriak ere; gaur egun zaila da horrelakorik zergatik gertatu ote den azaltzea.

Komunikabideak arduratu dira EAJren aurkako ideia eta egitasmo politikoak zabaltzeaz, batzuetan gogo handiz; gure ideia eta egitasmoak aldrebestuta azaldu edo, are txarrago, argi eta garbi arbuiatu egin dizkigute, iritzi publikoari gure benetako izaerarekin bat ez datozen bertsio, irudi eta usteak helaraziz. Horrela izan dira gauzak.

Hala ere, EAJren eta Alderdiaren beraren ideia-multzoak talde garrantzitsu baten adierazpide politiko gisa iraun du, oztopoak oztopo; hori ezezik, aurkako giro horrek politika eta gizarteko abagune gogorren ingudean urteetan zehar landutako ideia eta esperientziak metatzeko bidea eman digu.

Mendeurrenean gaude, etorkizuna eraikitze lanari lehengo indar eta adore berberaz heltzeko moduan. Aukera ona dugu, beraz, EAJren ideologia eratuz joan diren ideia eta esperientzien multzo hori, hari nagusietan baino ez bada ere, idatziz jasorik uzteko, erraz ulertzeko eran eta gaur eguneko hizkera erabiliz.

Horrela egingo dugu iragan eta geroaren arteko zubia.

Hemen ez da ezer berririk esango. Euskal abertzaletasunaren baitan sortutako gogoeta eta ideietatik hartua izango da dena.

Hona bildu diren ideien multzoan ez dira ageri Alderdiak bizi izan dituen gorabehera guztiguztiak, are gutxiago alderdikide guztienak. Esperientzia horiek aurrerantzean ere fruitu asko eman behar dizkigute hauteskunde- zein gobernu-egitarauen edo bestelako ekintzen bitartez garatuko diren errealitateetan.

Ideien azalpenean alderdikide guztien oinarrizko pentsamolde amankomuna baino ez dugu jasoko, EAJk ideia horien gainean eraiki behar baitu etorkizuna.

EAJk mendeurrenean azaldu nahi dituen printzipioak

Euskal Herria

EAJk baieztatu nahi du euskaldunek Herria osatzen dutela. Historia hasi baino lehenagotik Europan bizi den eta Europako herri eta etnietarikoa den herria. Gaur ere hor dirau, kontinentean bizi izandako herri zaharrenetarikoa edo zaharrena izatearen ohorea duela; euskaldunak gaur bizi diren lurralde berean bizi izan dira historiako garai guztietan.

EAJk baieztatu nahi du, halaber, ditugun datuen arabera, historia hasi baino lehenagotik euskaldunek euren nortasunari eusten diotela, Europako gainerako herriengandik bereizirik.

Euskaldunek Europako kronologiaren aro guztietatik igaro dira euren nortasuna inoiz ere galdu gabe. Horretan datza euskaldunen berezitasuna.

Euskal Aberria

EAJk aldarrikatzen du Herri hau aberria dela, hitzaren gaurko adieran, eta alderdi politiko den aldetik bere gain hartzen du Aberriaren egituraketa eta garapena sendotzeko funtsezko helburuari begira jarduteko konpromezua; hain zuzen ere, bera konpromezu hori betetzeko sortua da.

Ondokoa ere adierazi nahi du: Euskal Herriak berez biltzen ditu bere burua aberritzat aldarrikatzeko baldintzak; ez dauka bere nortasun eta ahalbide politikoak osatu beharrik inoren aitortenez, ezta kanpokoek ekimenei bidez ere. Nazioartean, eta bereziki Europako eremuan, herri eta nazioen artean, Euskal Herriak aberritzat hartua izateko baldintzak betetzen ditu, beraz.

Norbera gizatalde berezi edo Herri baten partaide sentitzea giza espeziearen aniztasunak berekin dakarren ondorioa da; horregatik, sentimendu hori berezkoa eta bidezkoa da. Bidezkoa da, era berean, sentimendu horrek eraginda, norbere herriaren berezitasunak zaintzen eta garatzen ahalegintzea, kultura, gizarte zein politikaren arloetan, eta helburu hori lortzeko behar adina ekintza bultzatzea. Horrek guztiak egitate, eskubide eta konpromezuen multzo bat osatzen du, gaur egun euskal abertzaletasuna deitzen diogun multzoa, alegia.

Hori dela eta, EAJk bidegabe eta arbuigarritzat jotzen du Estatu-nazionalismoaren nagusitasunaren indarrez inoren abertzaletasuna eragotzi nahi izatea, sentimendu horien garapena galerazten edo beroriek ezabatzen saiatzea.

Sentimendu eta egitasmo abertzalearen mugak hauexek dira: antzeko sentimendu eta egoerei zor zaien begirunea, eta inoren kaltetan gerta daitezkeen ekintzak baztertu beharra. Hemengo abertzaleoi ezin digute leporatu muga horiek gainditzea, euskaldunok, geure kabuz jokatzeko askatasuna izan dugun bitartean, elkartasun-eredu izan garelako, eta geure nortasuna defendatzeaz gain beti ere existentziaren ikuspegi orokorrari eutsi diogulako.

Historiaren balioa

Aldarrikapen hau egitearekin batera, EAJ ibilbide politiko luze eta etenik gabekoa jaso, bereganatu eta eguneratzen ari da. Tradizio hori dela bide, euskaldunek zilegi duten eran adierazi eta zehaztu dute euren nortasun politikoa; nortasun horren muina, berriz, jatorrizkoa duten eta denbora luzean eduki eta erabili duten askatasun eta independentzian dagoela ulertu dute.

Euskaldunen ordezkariak euren gain izan duten erakundeetariko bakar batek ere ez dio sekula uko egin bere ordezkarietasunari, ezta berau Estatuko inongo agintaritzaren esku utzi ere; gauza bera esan daiteke Euskal Herriak historian zehar izan dituen eskubideez. Euskal erakundeek, aukera izan duten guztietan, eskubideok aldarrikatzeari ekin diote. Historiak sendotutako eskubideak dira, Euskal Herriaren asmoen adierazle, eta berez ezinbestekoak.

Geure nortasuna zaintzeko eskubide ukaezina

EAJk uste du, eta hala aldarrikatzen du, Euskal Aberriak eskubide ukaezina duela bere nortasuna eta xedeak erabat garatu eta zaintzeko behar dituen aginpidea, ahalmenak eta erakundeak bereganatzeko; bestalde, aurrekoa zehaztea helburu duten edozein eratako prozesu aske eta demokratikoetan, herriak jasotzaile ezezik eragile izan behar du.

EAJk baieztatu nahi du ez dagoela eskubide horren egikaritze mugatzeko aitzakiarik, ez etika, ez zuzenbide eta ez historiaren aldetik; pragmatikotasun hutsaren aldetik ere ez dago zer esanik.

Beraz, inoiz independentzia aldarrikatuko balitz, beste edozein aukera bezain bidezkoa izango litzateke. Ez dago arrazoirik Euskal Herria beste inongo herriren azpitik egon dadin.

Euskal Herriak, era berean, badu eskubidea etorkizuneko egoera politikoari buruz modu aske eta demokratikoan berak har lezakeen erabakia, edo erabakiak, gainerako herri, erkidego eta erakunde politikoek aintzat hartzeko.

Euskal Herriak bere etorkizuna zehazteko akordioaren bat egitekotan, akordio horrek planteamendu eta erabaki demokratikoetan oinarrituta egon behar du.

Horrelako erabakirik hartzen ez den artean, EAJ egun dauzkagun erakundeen barruan saiatuko da Euskal Aberria indartzen eta iraunarazten.

Abiaburu horiek guztiak zuzentasunean oinarrituta daude eta beroriei indar apurrik ukatu gabe, EAJk argi ikusten du gizarteak orokortze prozesuan aurrera egiten duen heinean Euskal Herriari gizarte-eremu berrian bere lekua bilatu behar diogula, horretarako bide egokiak ezarriz. Euskal Herriak, ingurune horretan geroa bermaturik eduki dezan, gizarte bateratuan herri bizi eta eraginkorra, berezko kultura duena dela erakutsi behar du.

Euskal Herria Europan

Euskal Herriak, Europako herria denez, eskubide eta betebehartzat hartu behar du era guztietako ekintzak zuzenean bultzatzea eta gauzatzen laguntzea helburu hau lortzeko: Europan batasuna areagotu dadin, giza eskubideak errespetatu daitezkeen eta Europak erakunde demokratikoak eduki ditzan, bertako herri eta kultura guztiak benetan ordezkatzeko dituztenak, justizia xedetzat hartuta ekintza politikoaren bidez elkarbizitza baketsua eta aurrerakoia ekartzeko gai direnak.

Giza Eskubideak modu eraginkorrean garatzearekin batera Europa osatzen duten herri guztiak aintzatetsi behar dira, horixe delako Europako bakea eta barne-egonkortasuna bermatzeko funtsezko baldintza politikoa. Buru-belarri ekin behar zaio lanari, beraz, eragozpenei aurre egiteko; izan ere, orain arteko gertaerek erakutsi dutenez, badaude iritzi eta interes zehatz batzuk bidea oztopatzen dutenak.

EAJk azpimarratu nahi du Europak badituela irtenbide politikoak jokoan dauden interesen arteko oreka egokia lortzeko; irtenbide horiek, elkarrenganako begirunea eta laguntza bitarteko direla, sendotu egingo dituzte bai Europako benetako batasuna, bai subiranotasun eskusibo eta menperatzaileak baztertzeko prozesua ere. Horrelako subiranotasunak izan dira sarritan Europa astindu duten eta oraindik ere astintzen duten gatazken iturburu, eta berorien izenean gizateriaren aurkako gaiztakeria ugari egin da.

Bakea galtzeko arrisku nagusia ez dator herri eta nazioak aintzatestetik, horiek ukatuzetik baino.

Gure arteko banaketak. Euskal ingurunearen berrantolaketa

EAJk kontutan dauka nola euskaldunak, historiako gorabeheren ondorioz, bi Estatutan banaturik bizi izan diren; hala ere, EAJren ustez eginahalean lan egin behar da, aurrerantzean ere euskaldunak beste ezer baino lehen euskaldun izan daitezkeen.

EAJk badaki euskal lurraldeen artean ere historian zehar beste banaketa batzuk izan direla, baina beraren iritziz, euskaldunen interesak garatu beharrak eraginda, banaketa horiek gaingitu eta apurka-apurka batasunerantz jo behar da; era horretara, Euskal Herriak egitura sendo, egoki eta eraginkorra hartuko du, luze gabe etorriko zaizkion erronkei aurre egiteko beharrezko eta lagungarri izango duen egitura.

Gaur egun Subiranotasuna eta Zentraltasuna berriro definitzeko ahaleginetan gabiltza, kontzeptu biok funtsezkoak baitira gaurko Nazio-Estatuak ulertu eta definitzeko orduan. Geuk ere, esandako helburuak lortu ahal izateko, geure betiko eredia berriro definitu behar dugu, eta ez ditugu bazterrera utzi behar, indartu baizik, euskal gizartearen antolamenduaren gakoetariko batzuk: berezitasunak zaintzea, behetik gorako antolaketa, eta periferia erdigunearen menpe ez egotea.

Horrelako esparru batean, EAJren iritziz, Eusko Jaurlaritzak eta honen Administrazioak foru eta toki Administrazioen elkargune eta armonizazio gune izan behar dute. Administrazioaren eraldaketa helburutzat hartuta, batetik eraginkortasun eta orekaren irizpideei jarraitu behar zaie, eta bestetik dirua zuhurtasunez erabili, prozedurak erraztu eta bikoiztasunak baztertzera jo behar da.

Eusko Legebiltzarrak euskal lurralde guztien ardatza eta euskal gizarteko taldeen asmoen adierazpidea izan behar du. Izan ere, Eusko Legebiltzarrean daude ordezkaturik Euzkadiko hiru herritarretik bi; beraz, gaur egun herria ordezkatzeko erakunde bakarra dugu, euskaldunen borondatea eta nortasuna jaso eta mundura zabaltzen dituen erakunde bakarra.

Historiako ondare politikoa. Euskal abertzaletasunaren premia

EAJk gogorarazi nahi du Euskal Herriaren zati batek Espainiako Koroarekin garai batean izan zuen lotura politikoa erregearekiko batasun-itunean oinarrituriko formula politikoaren bidez sortu zela, hau da, Koroarekiko Ituna deitu zaion akordioaren bidez. Itun horren babesean euskaldunen jatorrizko ahalmen eta erakundeak zaindu eta bermatu egiten ziren, eta Erregearen eginkizuna Itunean bertan zegoen mugaturik.

EAJk beste hau ekarri nahi du gogora: elkarbizitza baketsua ahalbidetu zuen sistema politiko hura Espainiako indar politikoek hautsi egin zuten, Euskal Herriaren oniritzirik gabe asmatutako konstituzio-sistema ezarri zutenean. Izan ere, Konstituzio hark beren beregi ukatu zituen Euskal Herriaren estatus politikoa, eskubideak eta erakunde bereziak.

EAJk badaki euskaldun batzuek ontzat eman zutela aldaketa hori edo amore eman zutela; XIX eta XX. mendeetako gertaera historikoen, ordea, euskaldun gehien-gehienak aurka egon direla erakutsi dute.

EAJk azpimarratu behar du euskal abertzaletasuna oro har, eta bereziki EAJ bera, Euskal Herriaren eskubideen urratze haren ezinbesteko ondorio gisa sortu zirela, bitarteko politiko gisa alegia, euskalduntasuna erasoetatik babestu, kendutako askatasuna berreskuratu eta Euzkadi euskaldunon aberritzat aldarrikatzeko premia zegoen garaian.

EAJren partehartzea

EAJk sorreratik bertatik dihardu politikagintzaren arlo guztietan, bai Euskal Herrian eta bai Estatuan ere, bere helburuak bide demokratikoetatik lortzeko asmo bakarrarekin. Ekintza politiko hori zaila gertatu zaio, alde batetik, askatasun demokratikoak muga estuen barruan erabili behar izan dituelako, eta bestetik, zapalkuntza eta diktaduraren pean aldi luzeak igaro dituelako.

Trantsizio deritzon sasoian, batez ere, EAJ buru-belarri aritu zen. Garai horretan eremu demokratikoa sendotzea hartu zuen helburu nagusizat, Euskal Herriaren onura eta beste herrienganako elkartasuna gogoan.

EAJk eskuzabal jokatu du; ez du erantzukizunik eskatu zapalkuntza urte luzeetan jasandako irainengatik. Lehen esandako arrazoiez gainera, beti ere kontutan izan du, lehentasunezko helburu modura, Euzkadiren interes orokorrak zaindu beharra dagoela gainean dugun etorkizun ilunari begira.

Estatutua

EAJk hauxe adierazi nahi du: 1979. urtean, berak autonomia-sistema sustatzeari ekin zion; autonomia horrek itzuli behar zizkion herriari, zati batean behintzat, goian aipaturiko konstituzio-sistemak lapurtutako botereak, eta Estatuko agintariekiko harremanak berrantolatu eta baketzeko abiagunea izan behar zuen. Bestalde, beren beregi adierazi zen autonomia-sistema hori onetsita ere Euskal Herriak ez ziola inongo eskubideri uko egingo.

Hamabost urte baino gehiago igaro dira Gernikako Estatutua onetsi zenetik, eta EAJ ondokoa azpimarratu beharrean dago: Estatuko agintari eta erakundeek, Estatutuan agindutako ahalmen eta baliabide guztiak transferitzeko legezko konpromezua bete gabe edukitzeaz gain, urratu egin dituzte Estatutuaren xedapenak; izan ere, itunduta dagoen autonomia murriztarazi egin dute, hainbat lege, gobernu-egintza eta epai-ebazpenen bitartez.

EAJk zintzoki bete du Estatutua onartzerakoan emandako hitza; Estatuko erakundeen aldetik, aldiz, nabaria izan da Estatutuarekiko desleialtasuna.

Hori horrela izanik, EAJk uste du, indarrean dugun Estatutu honi dagokionez, arazoa patxadaz hausnartu ondoren neurri demokratiko egokiak hartu beharra dagoela; gerora begira sistema honen baliagarritasuna eta mugak aztertu behar ditugu, bai eta etorkizunean Euskal Herriaren interesak ahalik eta ondoen zaindu ahal izateko egin behar ditugun aukerak ere.

Diasporako euskaldunak

Munduan zehar barreiaturiko euskaldunek ere, EAJren iritiz, parte hartu behar dute Euskal Aberria indartu eta handitzeko ekimenetan, aberrikide direnez. Alderdiak beti bultzatzen ditu, ahal duen neurrian, kanpoko euskaldunekiko harremanak. EAJk eskertu egin nahi du haietariko askorengandik une eta egoera desberdinetan hartutako laguntza.

Etorkizuneko euskal gizartea, EAJren ustez, munduko hainbat bazterretan bizi diren euskaldun-talde askoren integrazioak eta elkarreraginak definituko dute.

Elkarbizitzarako jarrera irekia

EAJk hauxe gogorarazi nahi du: euskaldunok Estatuko erakunde eta buruzagiekin gorabehera ugari, batzuetan arazo oso gogorak, izan ditugun arren, harreman ezin hobekak ditugu Estatu frantziar zein espainiarreko gizon eta emakumeekin. Hain zuzen ere, herritar gehienek ez dute zerikusirik politikari eta pentsalari talde jakin batzuekin, alegia, betiko jarrera gogor eta itxiaz, euren elkarbitzita-egitasmoen bitartez, euskaldunon izaera suntsitzen edo, behintzat, eurek ezarritako neurrietara murrizten saiatu diren taldeekin.

EAJk ondokoa adierazi nahi du: edozein direla harreman politikoak edota Euskal Herriak bere etorkizunari buruz hartzen duen erabakia, bera Estatu frantziar eta espainiarreko gizon eta emakumeekiko harreman onei eusten saiatuko da beti, elkartasunaren bidetik aldendu gabe.

EAJk gogoan ditu kanpotik etorrita, gehienetan bizibidearen bila, gure artean bizi diren gizon eta emakumeak. EAJk ahaleginak egiten ditu horrek guztiek Euzkadin abegia eta bizimodu berria aurki ditzaten, euren borondatez Euskal Aberriara bil daitezten. Eurek ere leialtasuna eta garatzeko laguntza zor dizkiote Aberriari, denon onerako.

Funtsezko printzipioak

Aurrekoek ondareztat utzi dizkiguten balore etikoak eta ohiturak errespetatu eta bere egiten ditu EAJk; gure herrian hain hedaturik dagoen kristautasuna, baita gainerako sinesmenak ere, erabat onartzen ditu. Hori guztia kontutan, bere ideologiari eusten dioten oinarriak azaldu nahi ditu:

f Emakume eta gizonen nortasuna eta duintasuna bete-betean aintzatestea.

f Euskal Aberriaren garapena eta aurrerapena lortzea.

f Demokrazian antolatutako askatasuna eta elkarbitzita sustatzea, eta justizia ere bai, hau da, bakoitzari berea eman inori kalterik egin gabe.

f Pentsaera guztiekiko begirunea, eta ondo egindako lanari gizartean merezitako onespina ematea.

EAJk "Jaungoikoa eta Lege Zarra" leloari eusten dio, ikur edo esapide labur horrek ezin hobeto adierazten dituelako bere printzipio eta balore gorenak eta, aldi berean, elkarbitzita antolatzekeo zuhurtasuna eta jakituria.

Gizarte justiziaren eta elkarbitzita demokratikoaren alde

EAJk beti kezkatu da emakume eta gizonen arteko bereizkeriagatik eta aberastasun eta ongizatearen banaketa desegokiagatik. Desberdintasanak gutxitzeko neurriak hartzerakoan abiagune dogmatikoetatik urruntzen saiatu da, horrelako planteamenduek jartzen dituzten baldintzetan arazoak konpondu beharrean sarritan larriagotu egiten baitira. EAJren ikuspegitik gizarte justiziaren lorpena etengabeko konpromezua da, egunez egun eta gizarteko egoera aldakorrari estu loturik bete beharrekoa.

Azkenaldian marxismoa behea jotzen ikusi dugu bere ezintasunean itota, eta erregimen sozialisten pean bizi izan diren herrietako gorabeheren lekuko izan gara. EAJk, beraz, zuhur jokatu du

totalitarismo asmoetatik aldenitu eta irizpide pragmatikoak erabili dituenean, benetako egoerari egokitutako irizpideak: gizabanakoen askatasuna eta duintasuna bilatzea, lana duin bihurtzea eta behar bezala egindakoa gizartean aintzat hartzea, zama eta etekinak modu egokian banatzea, eta behartsuenei aurrera eragin eta laguntzeko neurriak hartzea.

Gauean dugun etorkizunak ekarriko dizkigun zailtasun eta zalantzei aurre egiteko, EAJren iritziz, Euskal Herriak adoretu eta bere gaitasunean konfidantza jarrita ekin behar dio geroa eraikitzeari, bere buruaren alde berak baino beste inork ezin dezakeela gehiago egin jakinda.

Gure Herrian antzina-antzinatik erroturiko uste eta usadioen arabera bizi izandako gizon eta emakumeek sortuta, EAJk gaur arte eusten dio demokraziarako senari. Bera izan da totalitarismo edo fazismoaren tentaldian erori ez diren Europako mugimendu abertzale bakanetarikoa.

Ahalegin horiek bide onetik joan daitezten, EAJk bultzatu egingo ditu bai elkarrenganako begirunean eta demokraziaren araberrako jokabideetan oinarrituriko elkarbizitza lortzeko ekinbideak, baita herritarren heziketa eta bizitzako betebeharrei aurre egiteko trebakuntza areagotzen dituzten neurriak ere.

Bereziki ahalegindu beharra dago kalitateko kultura sortarazteko, guztiok Euskal Aberriaren egitasmo erakargarrian parte har dezagun, Euzkadin bertan eta kanpoan ere harrera beroa izan behar duen egitasmoan.

Nola egituratu geure burua Alderdi Politiko modura

EAJk orain dela ehun urte sortu zenetik gogoan dituen xedeak lortzeko, bere burua egituratzeari dagokionez, ondoko jokabidea hartu behar du:

- 1.- Justizia, bakea eta askatasuna ezaugarri dituen elkarbizitza-egitasmoa landu eta garatzea Euzkadirentzat; egitasmoak euskal gizartea osatzen duten talde guztien oniritzia bildu behar du, Euskal Herriak, batasun gisa, ekintzaren bidez bere Aberri izaera aldarrikatu ahal izan dezan.
Proiektua ez da aldaezina izango; aitzitik, aurrera egin ahala helburuak zehaztuz joango dira, eta Euzkadiri, bertoko gizon eta emakumeei izen ona eman dieten baloreak hartuko dira oinarritzat: zintzotasuna, lana, zuhurtasuna eta elkarriketarako gaitasuna.
- 2.- EAJk izan behar du egitasmo horren garapena eragingo duen tresna eraginkor eta egokia.
- 3.- Bai Alderdiaren barruko erakundeetan, bai herriak hautaturiko jeltxideek gidatuko dituzten herri-erakundeetan, demokrazia aktibo eta eraginkorra eta kudeatzaileen erantzukizuna izango dira antolaketarako printzipio nagusiak.
- 4.- Beti ere balore jakin batzuk hobetsiko dira jendaurrean: zintzotasuna, zorroztasuna, ahalegin eta lanaren aintzatespena, eta emakume zein gizonen bizimodua hobetzea, gizartean egokitzat jotzen diren ongizate-mailak lortzeraino; horretarako, kalitateko hezkuntzaren eta kultur garapenaren bidetik joko da.
- 5.- Alderdia, alderdikideen bitartez, gizarteko eremu guztietara zabaldu eta jendearen kezka eta itxaropenen partaide bihurtzea.
Alderdiak elkarriketa sortzailea eragin nahi du bere kideen artean, baita bere kideen eta gizarteko gainontzeko jendearen artean ere.
- 6.- Arduradun karguak beteko dituztenak hautatzerakoan, haien gaitasuna, zintzotasuna eta euskal aberriaren egitasmoarekiko atxikimendua hartuko dira kontutan, eta karguaren eginkizunekin bat datorren esperientzia egiaztatua izatea ere bai.

EAJk badaki gaur egun errealitatearen ikuspegi zabala behar-beharrezkoa dela Euzkadin politika eraginkor eta onuratsua egin ahal izateko, geure nortasunari uko egin gabe. EAJk oso kontutan edukiko du baldintza hori bere jardura guztietan eta, batez ere, buruzagiak prestatu eta hautatzerakoan.

Buruzagien gaikuntza egokia bermatzeko, trebakuntza zentroak ezarriko ditu. Era horretara, bere gain hartu dituen eginbehar politikoak eta gizartearekikoak ezin hobeto bete ahal izango ditu.

Merituak aintzateste eta, behar izanez gero, erantzukizunak eskatzeko bide eraginkor eta zuzenak ezarriko ditu.

EAJk ez du inoiz ahaztu bera alderdi politiko hutsa dela, nahiz eta ohorezko titulu bi dituen: Euzkadin lehenengoz sortutako alderdi abertzalea izatea, eta dagoeneko ehun urtez jardutea

Euskal Herriaren alde. Haren xede eta egitasmoak Herriko talde handien sinesmen eta itzaropenen islada baino ez dira.

Ez du ahazten ere beste alderdiek ikuspegi desberdinak aurkezten dituztela. EAJk batzuk eta besteak errespetatzen ditu, eta haiengandik ere antzeko begirunea espero du.

EAJk, alderdi politiko den aldetik, tradizio demokratikorik onena duten herrietako alderdiek bete ohi dituzten lanak hartu nahi lituzke bere gain. Bide horretatik, elkartze-mugimenduak - gizartearen antenen antzera sortuak-, gaurko gizartean, Herriaren zutoin bilaka daitezkeela aitortzen du gure alderdiak; horiexek dira gune egokiak jendea elkarrengana hurbiltzeko, gizarte-klaseetatik bazterturik daudenei elkartasuna agertzeko, erantzukizunari aurre egiten ikasteko. Hori dela eta, Alderdiak horrelako elkarrekin harremanak areagotu egin nahi ditu, gizartearen egitura malgutzeko asmoarekin.

EAJ ziur dago beste alderdiek eta politikagintzako zein gizarteko indar guztiek ere, Euskal Herria aberritatzat ez daukatenak barne, ahaleginetan bat egingo dutela, denon artean Euzkadi indartzeko eta etorkizun hobea eraikitzeke egitasmoari gogotsu ekiteko.

ABERRIAREN ALDEKO AGIRIA 1995, UZTAILAK 31

Euskal Herriko seme-alabok: gizakiaren lehenaztarnak agertzen diren baino lehenagotik Europako bide-gurutze honetan bizi eta lan egiten duen herri honetako seme-alaba garenok, gaur, XXI, mendearen atari honetan, hauxe adierazten dugu, askatasunez eta irmotasunez:

- 1.- Euzkadi da gure Aberria.
- 2.- Sei lurraldeetako euskaldunok herri bakarra osatzen dugu, jatorriz eta borondatez. Bere buruaren jabe den herria da gurea eta ez dugu beste soberaniarik ez aitortzen, ez onartzen.
- 3.- Euskara da gure herriaren hizkuntza. Euskara berreskuratzea eta hedatzea baino aurrerago lanik ez da gutako inorentzat.
- 4.- Askatasuna eta justizia dira gure elkarbizitzaren oinarri. Ez dugu inoiz inoren larderiarik edo morroi izaterik onartuko, gure aurre-koek inoiz onartu ez zuten bezala.
- 5.- Inor ez da inor baino gehiago eta begirunea zor diogu elkarri bakoitzaren ideia, erabaki eta ekintzetan. Onartzen dugun diskriminazio bakarra jaiotzaz edo-ta eratorriz baliogutxituen aldekoa da. Gure gizartearen giza-neurria gure arteko ahulenek edo gaitasun gutxien dutenek jasotzen duten begiruneak erakusten du, batez ere.
- 6.- Herri bat ez da beste bat baino gehiago. Arrazakeriaren aurka gaude. Herri bat beste batek zapaltzearen aurka. Gure herriak edo edozein herrik du bere borondate, izakera eta balioen arabera izan eta bizitzeko eskubidea.
- 7.- Ezerk ez du guretzat indarkeriaren erabilera zuritzen. Armen indarrez gure herri erasotzen duenarengandik defenditzeko beharrak bakarrik.
- 8.- Gure ingurune, gure herri, gure mendi, gure soro, belardi, ibai, baso edo kaleak berreskuratu eta zaintzea ere lehentasunezkoa da guretzat.
- 9.- Senidetzat hartzen dugu gure herriaren etorkizuna gurekin batera egin eta bizi nahi duen guztia, nonnahitik etorria delarik ere.

ZIN EGITEN DUGU, zintzo eta lehiaketsu diogula euskal Herriaren bizi-nahiari, Aberriaren interesen gainetik norberarenak inoiz jarri gabe. Batu ere, arriskuan sentitzen den Aberri bereko kide izateak batu izan baikaitu eta batzen gaitu orain ere gu guztiok; ikasiak edo ez ikasiak; profesionalak edo industriako, nekazaritzako eta itsasoko langileak; dendariak, funtzionariak edo ertzainak; gizonak eta emakumeak; zaharrak eta gazteak.

Heziketan, erlijioan, ideologian, bizimodu mailan, gizarteko graduatan gure artean egon daitezken aideak alde, ba da zerbait guztiok batzen gaituena, euskaldun garenez; gure herria eta gure hizkuntza gordetzeko eta indartzeko dugun grina eta gogoia; halako aldeketan historikoak ematen ari diren momentu honetan herri hau arnasberritu nahia.

Hau da gure zina. Ongi ohartuak gaude hori betetzea zenbat odol-isurtze, atzerriratze eta espetxe kosta zitzaien gure aurrekoi. Hitza ematen dugu guk ere berdin beteo dugula, gutako bakoitzaren miseriak eta denboraren gorabeherak gaundituz.